

**UR GOIENA,
UR BARRENA
URTE BERRI,
EGUN ONA**

Urte berrian eltze zaharrak kanpora

Dorraon tradizio berezia dute urte zahar egunean, abenduaren 31n: eltze zaharrekin kalera ateratzen dira, zarata egitera, eta gero eltzeak harriekin apurtzen saiatzen dira, kantatzen duten bitartean. Duela 25 bat urte berreskuratu zuten ohitura

Erkuden Ruiz Barroso DORRAO

Urte berri, Urte zar, Eltze berri, Eltze zar, Eltzen urdei koxkor bat, Plazan ardo goxoa, Gora Eltze berri, Gora eltze zar Dorraoko kaleetan abenduaren 31n, urte zahar eguneko iluntzean, entzungo diren bertsoak dira. Egun horretan haur eta gazteak eltze zaharrekin aterako dira kalera, zarata eginez, eta herrian zehar ibili ondoren elizan zintzilikatuko dituzte eta harriekin apurtzen saiatuko dira. T.L.L. dorrobarrak azaldu duen bezala, eguberrietan Ergoienako herrian egiten den tradizioetako bat da, duela 20 urte baino gehiago berreskuratu zutena.

"Gure amon-aitonek eta osaba-izebek kontatutako gauzak dira. Haiek kontatu dizkirate ez nekizkien ohitura batzuk". Dorrobarrak azaldu duenez, eguberriak iritsi aurretik txerria hiltzen zuten, "eta egun handia zen hori". Txerrikiak egiten zituzten, eta zati hoberenak apai-zarendako zirela gaineratu du. Negua iritsita, abenduaren 24an, familia biltzen zen, "eta ohitura zen familia kide bakoitzak egur bat hartzea, su baxura botatzen zena". Familian hamar senide bazeuden, hamar egur hartzen ziren, bakoitzak bat aukeratzen zuten. "Nik ez nuen ohitura hori ezagutzen, egia esan".

Arratsaldean haurrak etxez etxe kantatzera ateratzen ziren, eta garai horretan etxeetan zutena ematen zituzten: fruitu lehorrak, pikupasak, gaztainak... Gaur egun dirua ematen dela gaineratu du dorrobarrak. Haurrek kalean abesten zuten, eta



Dorraoko Olentzeroa, eguberrietako tradizioetako bat. UTZITAKOIA

ondoren gauean etxean denek Olentzerori abesten zietela esan du. Afaldu aurretik ere abarkak eta galtzerdiak prestatzen zituzten. Hurrengo egunean, opariak jasotzen zituzten eta egunean bertan mustu behar zituzten: "Harrigarria baina kontatu zidaten ez nekien gauza bat: oparitutakoa egunean bertan estreinatu behar zituzten Deabruari edo Judasi begiak kentzeko. Bitxia da". Duela 100 bat urteko ohiturak dira.

Eltze zaharrak

Urte zahar egunean, abenduaren 31n, gazteak eltze zaharrekin zarata egiten joaten ziren herri osoan zehar. Ondoren, elizan zintzilikatzen zituzten, hilerriarren ondoan, eta harriekin apurtzen zituzten. Bitartean *Urte berri, Urte zar, Eltze berri, Eltze zar...* kanta abesten zuten. Ohitura

2000. urtean berreskuratu zuten, Pepin Pedrori esker; "Askargikoa zen, baina Pepinarekin ezkondu zen eta, hortik, Pepin Pedro". Tradizioa 90 urte inguru dituzten dorrobarrak ez zuten ezagutu, "baina bere gurasoenetik ezagutzen zuten. Pepin Pedrok kanta gogoratzen zuen eta berreskuratzea erabaki zuen". Elkartean zeuden egun batean bota zuen ideia: "Bertan zeuden gazteak, gaur egun 70 urte inguru dituztenak, eltzeak hartzea eta herri osotik joatea erabaki zuten". Haiek hasi eta gaur egun haur eta gaztetxoek jarraitzen

31N, DORRAON, 'URTE BERRI, URTE ZAR, ELTZE BERRI, ELTZE ZAR...' KANTATZEN DUTE

dute ohiturarekin: "Berreskuratu da, bai. Gertatzen dena da gazteak ez badaude galtzen dela, baina Dorraon gaztetxo asko daude, eta tradizioak aurrera egin du".

Sinbolismoari dagokionez, abestiak dioen bezala, urte berri egunean atarira eltze zaharrak atera behar dira berriei lekua egiteko. "Seguruena eltze zaharrak zaharrenak izango ziren". "Gu orain ari gara ohiturak berreskuratzen, baina berreskuratu behar izan genuen aurretik, gure amon-aitonek kontatzen zizkigutenean". Esaterako, inauteriak aipatu ditu dorrobarrak: "Amonak bai ezagutu zituen, amak ez; 120 urte izango zituen amonak, beraz, duela 150 urte inguru ospatzen ziren". Antza denez, "ez zen elizaren kontua izan; antza denez, auzokideen arteko haserreak zeudenez, sekulako kalteak egiten ziren". Hortaz, kontzejuak familia bakoitzeko kide batekin bazkari bat egitea erabaki zuen, gaur egun arte iraun duena. Dorraoko inauteriak Unanuko "oso-oso antzekoak" izango ziren.

Fareak

Errege egunaren bezperan, urtarrilaren 5ean, haur dorrobarrak fareak jantzi eta herrian zehar zarata eginez Meltxor, Gaspar eta Baltasarren bila joaten ziren. Lizarragan berreskuratu zituzten errege magoen segizioa, eta herriari buelta eman ondoren, Dorraora eta Unanura joaten dira erregeak. Lizarragan ere abenduaren 24an, gabon gauan, Olentzeroren bisitarekin bat eginez etxe bakoitzean kandila bat jartzera gonbidatu dituzte lizarretarrak, Su bat, etxe bat tradizioarekin bat eginez.

Sakanako zenbait herritan entzungo dira fare hotsak urtarrilaren 5ean: Irañetan eta Lizarragan eguerdian aterako dira, eta Dorraon, Iturmendin eta Altsasun arratsaldean. Altsasun fareen buruzagiaren zozketa egiten dute aurretik.

GABONAK

ABENDUAREN 19TIK URTARRILAREN 8RA

OLATZAGUTIA

Sakanako Belenzaleen Jaiotzen Erakusketa. Astelehenetik larunbatera 17:30etik 20:00etara eta igande eta jai egunetan 13:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Sakanako Belenzaleen egoitzan.

ABENDUAK 20

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

EGIARRETA

19:00 Mari Domingi: Mari Domingiren ipuin kontaketa, Mari Domingiri harrera eta eskutitzen jasotzea, Itxasperrin. Ondoren, herrira kalejira eta gazta eta txokolate jana.

ABENDUAK 21

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

ZUHATZU

18:00 Olentzero Andia menditik jaitsiko da eta 20:00ak arte kalejira egiten dute. Ondoren, Olentzerorekin afaria.

ABENDUAK 22

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

IRURTZUN

18:00 Olentzeroren eskutitzak: Olentzeroren postontzira kalejira, Foru plazatik. Olentzero batzordeak antolatuta.

ETXEBERRI

18:00 Olentzero menditik jaitsiko da, eta harrera egingo zaio. 18:15 Olentzeroren herriitik buelta txistulariak lagunduta. 18:45 Haurrek topagunea eta argazkien txokoa, frontoian. 19:30 Gaztain erreak, sagardoa eta txokolate banaketa denondako.

IRAÑETA

17:30 Txokolate jana, elkartean. 18:00 Basakoetxeare eskutitzak




EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea





entregatzera.

ITURMENDI

11:00 Olentzero eta Mari Domingiri eskutitzak uzteko postontzia bilatzera joatera deitu dituzte iturmendiarrak.

LAMINATUTUR

OLATZAGUTIA

18:30 Laminatutur, Maisuenea gaztetxean.

ABENDUAK 24

GABON GAUA OLENZERO ETA MARI DOMINGI

IRURTZUN

18:30 Olentzero Plazaolako zubitiki iritsiko da, eta herritik kalejira egingen du.

ETXARREN

16:30 Olentzerori harrera egingen diote, plazan. Herritik kalejira egingen dute eta Txoripan dantza taldearen emanaldia izanen da. Ondoren, oparien banaketa.

SATRUSTEGI – HIRIBERRI

17:30 Txokolate jana, Satrustegiko elkarteak.
18:30 Ongi etorri Olentzero eta Mari Domingi, Satrustegin.
20:00 Hiriberrira iritsi. Merendua eta saski zozketa, Txitera elkarteak.

IHABAR

18:30 Herriko gazteak traktorea hartuta Barga aldera joko dute, Olentzeroren bila, eta harekin herrira iritsiko dira, eta herrian barna kalejiran ibiliko dira. Ondoren, segizioa plazan gelditu eta ikazkinak hurrei opariak banatuko die. Helduren batzuk ere jasoko dute. Agurraren ondoren, gaztaina erreak eta sagardoa eskainiko ditu kontzejuak. Aspaldiko partez, aurten herriko gaztainak izango dira.

IRAÑETA

18:00 Olentzero etorriko da.

UHARTE ARAKIL

10:15 Pazkoan Amore. Oharra: Baserritarrez jantzi.
18:00 Olentzero eta Mari Domingi Itxesitik iritsiko dira. Galtxorratx kultur elkarteak antolatuta.

ARRUAZU

Olentzeroren etorrerarekin batera, ohitura zahar bati eutsi nahi diote Arruazun: Eguzki zahar Eguzki berria. Herriko etxe guztietan egurrekin sua egitea nahi dute, herriarendako eta herritar guztiendako desio eta ametsik onenak eskatzeko asmoz. Su berritzaile eta garbitzailea pizten zuten enbor horrekin, urteko gaurik luzeenean berotasuna eta argitasuna eskaintzen zien. Sua piztean urte berrirako desioak, ametsak eta abar eskatzen zituzten; eguzki berri baten jaiotza eta ziklo baten hastapena ospatzen zuten.
12:30-13:30 Herriko gazteak etxez-etxe pasako dira egur bat jasotzeko.
17:00 *Olentzero – Enborra* ipuin kontakizuna izanen da, herriko etxean.

17:30 Egurtxoak margotzeko haurrendako tailerra izanen da, herriko etxean. Ondoren, etxez etxe bildutako egurrekin batera erreko dituzte.

18:30 Sua, futbol zelaian. Hurrek egindako egurtxoak erretzeko aukera izanen dute.

19:00 Olentzero Arnazbidetik helduko da eta trikitilariak lagunduta herritik kalejira egingen dute. Ondoren, opari banaketa egingen du, elkarteak.

LAKUNTZA

11:30 Gabonetako marrazkiak, Biltokian.
18:30 Olentzero eta Mari Domingi herrian zehar kalejiran. Ondoren, opari banaketa, Biltokian. Biltokik antolatuta.

ARBIZU

18:30 Herritarrak plazan elkartuko dira eta kalejira kaxeta bidera joanen dira, Olentzero, Mari Domingi eta astoari ongi etorria egitera. Haiekin elkartuta gurdira igotzen dira eta denak batera herriari buelta emanen diote. Bitartean, Olentzerok eta Mari Domingik goxokiak eta gaztainak banatzen dizkiete hurrei. Ondoren, opari banaketa egingen dute; haurrak banan-banan joanen dira Olentzero eta Mari Domingirengana haien oparia jasotzera.

LIZARRAGA

18:00 Olentzero eta Mari Domingi menditik Dorrao bidetik jaitsiko dira, eta beraiekin batera kantuz herriari buelta emanen diete. Karrikaz karrika buelta ematen denean, etxe bakoitzak kandila ateratzera animatu dituzte herritarrak: su bat, etxe bat.



ARTXIBOA

DORRAO

14:00 Hurrekin bazkaria, elkarteak.
16:00 Etxez etxe kantatu.
18:00 Mari Domingi eta Olentzerori ongi etorria.
19:00 Plazan denok batera kantatu.
19:05 Agurra Mari Domingi eta Olentzerori.
19:15 Beinduba, elkarteak.

UNANU

16:30 Txokolatea egiteko bilduko dira, elkarteak.
18:00 Mari Domingi eta Olentzeroren kalejira.
19:00 Txokolate jana.
19:30 *Pazkuekin Amores*, etxez etxe.

ETXARRI ARANATZ

17:30 Txokolate jana Aldapasoro auzoa, Haritzalko aldean.
18:00 Olentzero eta Mari Domingi iritsiko dira. Behin harrera eginda, kintoek segizioa zabalduko dute eta herrian barnako ibilbidea erakutsiko diete. Hainbat geldialdi egingen dituzte, kantatzeko. Ibilbidea plazan amaituko da, eta Olentzero eta Mari Domingirekin hizketatzeko eta haiekin argazkia ateratzeko aukera izanen dute hurrek, baita opari txiki bat jasotzeko ere.

BAKAIKU

18:00 Olentzero eta Mari Domingi Santio plazara iritsiko dira. Bakaikuarrak musikarekin eta dantzarekin harrera egingen diete. Ondoren, bikoteak kantu eta musika lagun, kalejira egingen du. Ibilbidea Santio plazan amaituko da, eta han agurtuko dituzte Olentzero eta Mari Domingi.

ITURMENDI

16:30 Gabon kantak abestuko dituzte, plazan.

17:30 Txokolate jana, plazan.
18:30 Olentzerorekin kalejira egingen dute, plazatik.
20:00 Auzatea, frontoian.
20:30 Saskiaren zozketa.
Nekazariz jantzeko deia egin dute. Iturmendiko Udalak antolatuta.

URDIAN

18:00 Olentzero eta Mari Domingi basotik jaitsiko dira, oinez, zuziri eramaileek eta txistulariek lagunduta. Plazaraino bidea oinez egingen dute. Herriko hurrek dantzak eskainiko dizkiete txistularien laguntzarekin eta, ondoren, Olentzero eta Mari Domingi gurdira igoko dira eta herriari buelta emanen diote, hurrei kakahueteak eta goxokiak botatzen dizkieten bitartean. Elizako atarian despedituko dira, eta ardo beroa eta pikuak eskainiko dira.

ALTSASU

11:15 Irteera Mari Domingi eta Olentzeroren topaketara joateko, kalejira Zangitu Fanfarrearekin, Altsasuko gaita jotzaileekin eta Musika Eskolarekin, Foru plazatik.
12:00 Eskutitzen bilketa, Foru plazan.
18:00 Olentzero eta Mari Domingi iritsiko dira; kalejira txistulari, dantzari, Zangitu fanfarrea eta Altsasu Kantuzek lagunduta, Aita Barandiaranetik.
Ibilbidea: Idertzagaitz, Zaharren egoitzaren aurreko geltokia, Bakea kalea, Zumalakarregi plazan geldialdia, Bake kalea, Iortia zabalgunean geldialdia, Solana, Beti laten elkarteak geldialdia, Solana, Gartzia Ximenez, Zubeztia kalea, Gurutze Santuaren kalea, Foru plaza.
20:00 Olentzerori eta Mari Domingiri agurra, Foru plazan.

Altsasuko Udalak antolatuta, Zelandiko, Iñigo Aritza ikastolako eta Corazonistaseko guraso elkarteak laguntzarekin eta hainbat babesleren laguntzarekin.

OLATZAGUTIA

18:00 Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Urbasatik eta herriko kaleetatik kalejira. Ondoren, ardo beroa, gaztainak, musika eta abar, frontoian.

ZIORDIA

18:30 Olentzero eta Mari Domingi goiko iturrira iritsiko dira. Handik Anixeta tabernara joanen dira, eta Joxemi Marisek kanta bat abestuko du. Kalejiraren hurrengo geldialdia baselizan izanen da, eta bertan hiru hurrek agurra dantzatzeko diete. Eguraldi ona badago, ibilbidea gazteluan bukatuko da; eguraldi txarrarekin, frontoian. Ibilbidea zehar Ziordiko Gazte Asanbladako lau kide, baserritarrez jantzita, bidelagun izanen dira, suziak eskutan dituztela.

ABENDUAK 31

URTEZAHARRA

IRAÑETA

00:30 *Ur goiena, ur barrena* kantatzera aterako dira.

DORRAO

12:00 Haurrak eltzeekin herri guztian barna joaten dira *Urte berri, Urte zar, Eitze berri, Eitze zar, Eitzien urdei kokkor bat, Plazan ardo goxoa, Gora eltze berri, Gora eltze zar kantatzen, eta eltze zaharrak biltzen*. Bukaeran, eltzeak zintzilikatzen dituzte eta harrika txikitzen saiatzen dira. Eguerdian kazulekin zarata atera eta etxez etxe ariko dira.

HURRENGO ORRIAN JARRAITUKO »

LIZARRAGABENGOA

00:15 *Ur goiena, ur barrena* kanta erronda eginen dute, Bordatxo elkartetik.

ETXARRI ARANATZ

01:30 Etxera brindisa.
02:00 Eliza paretik *Ur goiena, ur barrena* abestera aterako dira, eta herriari bueltan emanen diote kantatzen herritarrek.

BAKAIKU

00:30 *Ur goiena, ur barrena* abestera aterako dira, erdiko iturritik.

ITURMENDI

00:30 Kinto segizioa –kintoak, kinto zaharrak eta gazteak– *Ur goiena, ur barrena* kanta abestuko dute, eskean aritzen diren bitartean. Esker onez, moskatela eta pastak eskainiko dituzte.

URDIAIN

00:00 *Ur goiena, ur barrena* eginen dute, apaizaren etxean.

URTARRILAK 1**ALTSASU**

19:00 Auzatea, Gure Etxean.

URTARRILAK 3**PAJEAREN EGUNA**

18.30 Pajeen irteera, Zelanditik.
19:00 Eskutitzen bilketa, Burunda pilotalekuan.

URTARRILAK 5**FAREAK ETA ERREGEAK****IRURTZUN**

18:30 Errege Magoen desfilea, Matxainen hasiko da eta ibilbidea elizan bukatuko da. Erregeek haurrak agurtuko eta haiekin



ARTXIBOA

egoteko aukera izanen dute; erregeek goxokiak banatuko dituzte eta haurrek oparitxo bat jasoko dute. Kabalkada batzordeak antolatuta.

IRAÑETA

12:00 Txistorra jatea, elkartean. Ondoren fareekin herriari buelta.

UHARTE ARAKIL

12:00 Txokolate jana eta pajeen bila joango dira.
18:00 Erregeak Geltokiko auzotik iritsiko dira.

LAKUNTZA

18:00 Erregeak basotik iritsiko dira, ubeldean. Ondoren, errege segizioa lakuntzarrek lagunduta herrian barna ibiliko da. Ibilbidea elizako atean bukatuko da, eta erregeek opariak banatuko dituzte.

ARBIZU

18:30 Erregeen segizioa udaletxetik abiatuko da. Ibilbidea: Kale Nagusia, Fernando Urkia eta Iruñeko

ABENDUAK 31 Kirol probak eta mendi irteerak**IRURTZUN**

09:30 Ergako Trinitatera igoera. Goian hamaiketako, Iratxo mendi taldeak antolatuta.

VIII. Pikubestrea, Pikuxar paretik:

16:30 Haurrak: 6 urtera arte 150 metro; 7 eta 13 urte bitarte: 500 metro.
17:00 Helduak: 4,2 kilometro. Izena ematea: haurrak, doan; helduak, 3 euro.

UHARTE ARAKIL

San Silvestre Traila:

15:30 Izena ematea: Haurrak, doan; helduak, 2 euro; Uharte Arakilgo igerilekuetako tabernan.

16:00 Lasterketaren hasiera. Haurrendako bi proba: benjaminak, 400 metro, eta haurrak 800 metro. Kadete eta helduendako proba: San Vicenteko Bira, 5 kilometro. Ondoren, auzatea.

LAKUNTZA

09:30 Lakuntzeskoarria igoera. Zabalartek antolatuta, plazatik. Hamaiketako Arangunen.

ALTSASU

XLV. San Silvestrea – Mario Lopezen Oroimenezkoa.

Dantzaleku Sakana Klubak eta Sakana Triatloi Taldeak antolatuta:

18:00 Haurren lasterketak.

19:00 Helduen proba: 5 kilometro, zirkuituari hiru itzuli, udaletxe aurretik Foru plazara.

Izena ematea: helduen proba: abenduaren 30era arte, dantzalekusakana.com webgunean; 5 euro, bazkideak doan. Haurren proba: egunean bertan, doan.

Bukaeran sari ematea eta zozketak: Katealdeko eta Coservas del Reinoko produktu sorta, eta Atletismo eskolako sarien zozketa.

OLATZAGUTIA

XX. San Silvestrea. Sutegi Klubak antolatuta.

16:00 Izena ematea, frontoian.

16:30 Txikitxoan, 4 urtera arte, eta benjaminak, 5 eta 7 urte bitartean: 300 metro. Kimuak, 8 eta 11 urte bitartean: 600 metro.

Jubenilak, 12 eta 15 urte bitartean: 1.240 metro, zirkuituari itzuli bat.

18:00 Proba nagusia: 5 kilometro inguru, zirkuituari lau itzuli.

Bukaeran sari ematea eta salda beroa.

Etorbidea, elizara itzultzeko. Bertan haurrek erregeengana gerturatzeko aukera izanen dute, baita oparia jasetzeko ere.

LIZARRAGA

Goiz-eguerdian, umeek fale hotsekin erregeei dei eginen diete.

18:00 Errege kabalkada elkartean hasiko da. Ondoren, Dorrau eta Unanura abiatuko da.

Ondoren, afaria, elkartean.

Txartelak: abenduaren 29an
17:00etatik 19:00etara salduko dira, Azi Iturri Txokoa elkartean.

DORRAO

17:00 Haurrak faleekin hotsa direla ibiltzen dira, erregeak iritsi arte.
18:30 Erregeen iritsiera.

UNANU

17:00 Txokolatea egiteko elkartuko dira, elkartean.
19:00 Txokolate jana.
20:30 Lizarragako Erregeak plazara iritsiko dira.
22:30 Herri afaria.

ETXARRI ARANATZ

Iluntzean Meltxor, Gaspar eta Baltasarren erregeen segizioa elizatik abiatuko da. Ibilbidea: Maiza kalea, Mundiñano kalea,

udaletxea, errotonda, Larreñondo, Ugalde eta Lazkoz kaleak, plazan amaitzeko. Estalpean hurrekin hizketan egonen dira, eta opariren bat izanen dute haiendako ere.

BAKAIKU

19:00 Errege segizioa beheko basotik iritsiko da eta herria bisitatu dute. Ibilbidea elizan amaituko da. Haurrek erregeengana hurbiltzeko eta oparia jasetzeko aukera izanen dute.

ITURMENDI

16:30 Haurrak fareekin herrian barna ariko dira.

17:30 Txokolate jana, plazan.

19:00 Errege segizioa beheko basotik iritsiko da eta Pilaralde kaletik herrira igoko dira. Herrian barna kalejiran ibiliko dira eta bi geldialdi eginen dituzte: mojen etxean eta elizan Jesus haurra agurtzeko. Ibilbidearen amaiera frontoian izanen da, eta erregeek hitza hartuko dute, goxokiak banatuko dituzte eta auzatea izanen da.

ALTSASU

17:00 Faren jotzea, Foruen plazan.

18:00 Errege Magoen kabalkada, Zelaitxikitik.

Ibilbidea: Zelaitxiki, Zelai, Isidoro Melero, San Juan, Burunda, Araba, Gipuzkoa, Bakea kalea, Gartzia Ximenez, Foru plazan agurra eta adorazioa, Gurutze Santuaren kalea, Zubeztia kalea, Gartzia Ximenez, San Juan, Geltoki kalea eta Felix Arano etorbidea.

19:00 Errege Magoen elkartzea eta adorazioa, Foru plazan.

Altsasuko Udalak antolatuta, Zelandiko, Iñigo Aritza ikastolako eta Corazonistaseko guraso elkartean laguntzarekin eta hainbat babesleren laguntzarekin.

OLAZTI

18:00 Erregeen kabalkada jubilatuen egoitzatik aterako da eta herrian barna ibiliko dira.

ZIORDIA

19:00 Errege segizioa Texeria kaletik aterako da, eta herrian barna ibiliko dira, elizan bukatzeko. Hurrei goxokiak emanen dizkiete.

URTARRILAK 6**ETXARRI ARANATZ**

12:00 Hiru erregeak mezan egonen dira.

PORTUKO
okidengia

Urte berri on!
Errege eguneko opilak aurretik eskatu

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988 | Urdiain: 948 563 763

EGURDIAIN
sutarako egurra

608 57 03 57





ASTEKOA

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN

Osasuna (II)

Iaz, sasoi honetan, ataka berberean nengoen: urteko azken kolaborazioa prestatu behar nuela. Iazko zutabeari begiratuta, berdin berdin bidal nezakeen aurten berbera, urtearen nondik norakoa egin nuelako, eta onerako ezer gutxi aipatzeko aurkitu nuelako. Eta ez hori okerrera, baizik eta onerako aldatzeko oso aukera gutxi ikusten nuelako.

Orduko hartan, Ukraina eta Errusia, Israel eta Gaza, Mediterraneoan batzueneko hilobi, gizonok emakumeen etsai, eskuin muturraren geldiezinak gorakada... eta holakoak aipatzen nituen, eta berdin berdin adieraz dezaket, epe laburrean, onerako aldaketarik izateko aukerarik ez dela ikusten.

Hohera ezer gutxi egin dugu; baina ez naiz ezkorra edo igarotako edozein garai hobe izan dela pentsatzen dutenetako bat, kontrakoa baizik, nahiko pertsona baikorra; eta zerbait positiboaren bila abiatu naiz. Ea munduko erakundeek gaurkoz zer iragarria diguten.

Hara, gaur Giza Elkartasunaren Nazioarteko eguna da, elkartasuna herrien arteko lankidetzeta eta ongizaterako funtsezko balio unibertsal gisa sustatzeko helburuarekin. Zeinen garrantzitsua den herrien arteko lankidetzeta; eta are gehiago, honela adierazita, "herrien artekoa", eta ez estatuen artekoa edo gobernuen artekoa, azken hauetan, beti, interes bat edo beste tartekatzen da eta.

Gaur baita ere Eszeptizismoaren Munduko Eguna ospatzen da, Carl Sagan ikertzaile ezaguna omentzeko helburuz, bera eszeptizismo filosofikoaren dibulgatzailea izan baitzen, orain arte indarrean egon den doktrina.

Ez dakit ba, lehen baikorra nintzela adierazi dut baina orain, neurri berean, eszeptikoa ere naizela aitortu beharko. Nik uste, horri errealista esaten zaiola.

Tira, iaz bezala hasi naiz eta berdin bukatu beharko, osasuna opatzen. Esandakoa, gora Osasuna eta osasuna guztiondako.

HARA ZER DIEN

Altxa Burua gure zonaldean

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Sare sozialak gehiegi eta gaizki erabiltzea gizartearen kezka bat da. Etengabe ikusten dugu albisteetan, eta egunero ikusten dugu etxean, batez ere mugikorrek dituzten haurrak eta nerabeak dauden etxeetan (ez gara hain kritikoa helduen artean). Ordu asko ematen dituzte pantailetan. Egia da dena ez dela txarra eta erabilera on batek erraztu eta lagundu egiten digula gure bizitzako alderdi askotan. Kontua adina eta sen ona dira. Haur batek ezin du zentzuz jokatu mugikor baten erabileraren aurrean, bere garuna ez dago ebolutiboki prestatuta. Ez du maila horietan bere burua arautzeko gaitasunik.

Egoera horrek kezkatuta dauden gizarte-mugimenduak sortu ditu, hala nola Altxa Burua.

Altxa Burua Gipuzkoan sortu zen plataforma bat da, pantailak eta mugikor adimendunek haurrengan eta nerabeengan dituzten ondorio kaltegarriekin kezkatuta dauden familiez osatua. Honela definitzen dira: teknolo-

giaren erabilera egokia bultzatu nahi duten guraso-taldeak, herri eskola eta auzoetan elkartzen direnak eta Altxa burua Gipuzkoa sarea osatu dutenak laguntzeko eta indarra egiteko. Helburu hauek batzen dituzte: gure seme-alabei Internetarako sarbidea duten gailuak ematea atzeratzea; eskolak telefono mugikorrik gabeko arnagune bihurtzea; eta helduak eta seme-alabak erabilera egokian gaitzea, familiaren erabileran eredu izatea eta kontzientzia ehuntzea. Bestalde, hezkuntzaren digitalizazioa ere kezkatzeko arrazoi orokorra da euren dako.

Honi guztiari aurre egiteko modua sareak eraikitzea da: gauzak elkarrekin egiteak, bakarrik egitea baino errazagoak izatea eragiten du. Eredua ematea, eta heldutasunez lan egitea. Hezkuntza digitalean tresna egokien lan egitea; garrantzitsua da arlo horretan ere lan egitea.

Oinarri berberekin, Sakanan ere bada mugimendurik, eta herri askotan -Etxarri Aranatz, Altxa-

su, Uhartea Arakil...- hain garrantzitsuak diren sare horiek sortzeko lanean ari dira. Plataformak ondo dioen bezala, gauzak elkarrekin egiteak dena errazago bihurtzen du, eta txikitatik barneratzen badute komunitate edo herri honetan mugikorra ez dela beranduago arte ematen, barneratze hori errazten diegu, eta, batez ere, sare sozialen eta Interneten atzean egon daitekeen alde negatibo guztia prebenitzen dugu: bullyinga, traba egitea, batere gomendagarriak ez diren plataformetarako sarbidea eta abar. Horrez gain, nola ez, pantailen menpekotasuna jasatearen arriskua ekidingo dugu, adin goiztiarretan arrisku handiagoa baita goiko adikzioa sortzeko.

Eskertzekoa da komunitate-mailako familia-mugimendu horiek sortzea eta erakundeen laguntza eskatu ahal izatea. Edozein ekimen-mota, zenbat eta komunitarioagoa izan, orduan eta arrakasta handiagoa izango du. Teknologia ondo erabiltzeko eta haurrak eta nerabeak babesteko ardurata eta lanpetuta dauden mugimendu horiei guzti, animo!!!

GUTUNA

Eguberri on!

INGERU MIKEO AZPIROTZ

Antonio, gizaseme kaskagor samarra baina jatorra zen, basozaina lanbidez, ikasketa gutxikoa baina bizitzan oso ikasia. Horrela, egun batean, egunkarian leitu nuen Kintoko basozaina izandakoa etxeko konponketa bat egiten ari zela aldami batetik erorita hil egin zela. Horixe ustekabe! Harekin familia mailako harremana genuenez, biharamunean

eta hurrengo egunetan egunkariari erreparatu nion ea hiletak noiz burutuko ziren jakiteko, atsekabe horretan, bere emazteari eta seme-alabei gure doluminik sentikorrenak azaltzeko. Baina, eskelarik ez. Harriturik, haren hurbileko lagun bati deituta, esan zigun, familiak erabakita, Antonioren heriotza izan zela-eta, ez zutela ez hiletarik ez bestelakorik egin behar. Horrela, egun batzuk pasatzen utzita, bere alargunari eta seme-alabei bisita egitera joan ginen. Elkar agurtu eta doluminak

azaldu ondoren, hiletaren gaineko berririk ez izateagatik gure harridura aipatzean, Eukenek esan zigun Antoniok, behin jubilatuta, osasunez bizkor bazebilen ere, Covid-aren ondorioz herioaren itzala ikusita baitzen, berari eta seme-alabei gozotasun osoz esan ziela kasualitatez hilez gero, bere hileta eta gainerako kontuak nola izatea nahi zuen. Eskakizun horien artean omen zeuden ez zuela egunkarietan eskelarik nahi, ez elizkizunik, ezta beste ekitaldirik ere; bere agurra fami-

lia txikian egitea nahi omen zuen, eta kitto! Eta halaxe egin zuten, eta hantxe zeuzkaten Antonioren errautsak, egongelan, keramikazko pote dotore batean sartuta; hortaz, aukera izan genuen Antonio bera ere agurtzeko (edo, haren izpiritua).

Urte zahar hau hiltzera doanean, hainbat kontu eska litezke urte berria hobe izan dadin. Esaterako, nafar politikariak elkarrekin mokoka ibili ordez, ahaleginak egin ditazela herritarren premiak konpontzeko (etxebizitza, herrie-

tako despopulazioa eta bizi kalitatea, industria eta kalitatezko lanpostuak, migranteen egoera, natalitatea...). Edo, Ukrainako milakako gazteren sarraskia eta Israel Gazan burutzen ari den genozidio basatia bukatzea, nazioarteko oinarriko eskubideak aintzat hartuta. Edo, Mediterraneo heriotza kopuru eskandalagarria amaitzea, eta abar. Gerra eta gorrotoaren lekuan bakea eta lankidetzeta. Beharbada, gauza potoloegiak Olentzerori eskatzeko. Eguberri on!



www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus


Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Izan giltzarri!



Juan Luis Larraza Lakunza Irakasle ohia eta idazlea

Guaixe Fundazioaren berri jakin nuenean, bere garrantziaz berehala jabetu nintzen, izan ere, egin dezakeen eta egiten ari den lana Sakana osoan, oso garrantzitsutzat jotzen dudalako.

Beraz, egin zaitetz giltzarri!



[guaixe.eus/
kideak](https://guaixe.eus/kideak)



Sei suhiltzaile gehiago Altsasuko parkerako

Lau leku aldaketagatik etorriko dira eta beste biak oposizioa bukatu dute

SAKANA

Altsasuko suhiltzaileen parkeak sei suhiltzaile berrirekin hasiko du urtea, 27 suhiltzaile izatetik 33 izatera pasako da. Haietatik kaboak hamar izanen dira eta 23 suhiltzaile. Altsasuko suhiltzaileen parkeko buru Pedro Gainzak azaldu duenez, "parkean gutxienez hiru suhiltzaile egon beharra dugu, eta orain egunero lau edo bost izanen gara. Horrek larrialdiei erantzuteko tarte handiagoa ematen digu". Hala ere, parkeko suhiltzaile bat Erreskate Teknikoko Taldean dago lanean, eta beste bat baso suteen kontrako helikopteroko brigadan ari da. Beraz, bi suhiltzaile horiek beraien lan egutegiaren erdia Iruñean egiten dute, eta beste erdia Altsasun.

Bestetik, Nafarroako Gobernua Altsasuko suhiltzaileen parkean lanak egiten ari dira. Fatxada margotzeaz aparte, aldagelak handitzen ari dira.

Ziordian hamar urte daramate hondakinak ezin kendu

Bai udalak bai Gurelur elkarteak hainbatetan eskatu diote konponbidea gobernuari

ZIORDIA

Enpresa itxi ondoren, Aralur lantegiaren mendebaldean Gipuzkoako atez ateko bilketarekin jasotako eta guztiz konpost bihurtu gabea zegoen materia organikoko metak jaso gabe gelditu ziren 2014an. Han daude oraindik, nahiz eta Ziordiko Udala ordutik ari den haiek kentzeko eskatzen. Lantegian Gipuzkoan birziklatzeko emandako arropa metak agertu ziren 2019ko udazkenean. Bota zuena ere harrapatu zuen Foruzaingoak, eta isuna jarri. "Baina zaborrak zaborra deitzen du eta lantegia kontrolik gabeko zabortegia bihurtu da. Hesiak jarrita ere, jendeak kendu eta han botatzen ditu hondakinak", azaldu du Olatz Irizar Martinez alkateak. "Ingurumen Departamentuarekin arazoa bideratzen saiatu gara hainbatean, baina ez dugu lortu. Gaiari nola heldu aztertzen ari gara orain".

Nafarroako Gobernutik 665.957 euro zuzenean

Foru administrazioaren 2025eko aurrekontuan jasotako zuzenketen bidez iritsiko da diru hori ibarrera. Horretaz aparte, Teknoadineko proiektuarendako beste 60.000 euro aurreikusitako diru herrialdeko aurrekontuak

SAKANA

Nafarroako Gobernuaren aurrekontuari hura babesten duten alderdi eta koalizioek aurkeztutako zuzenketak onartuak dira. Guztira hamabost milioi euroko balioa dute, haietatik hamar udalei zuzeneko dirulaguntzak emateko dira eta beste bost gizarte erakundeendako. Sakanarako bederatzi zuzenketa dira, guztira 665.957 euro. Hau da, zuzenketetarako zegoen diru poltsaren %4,43 ibarrera iritsiko da. Zuzenketa horien bidez ibarrak jasoko duenetik 529.000 euro (%79,43) toki erakundeen inbertsioetarako izanen da, gainontzeko 136.957 euroak (%20,56), berriz, gizarte erakundeek jasoko dute.

Zertara

Uharte Arakilgo frontoia eraberritzeko 220.000 euroko proiektua du. Gobernutik jasoko dituen 120.000 euroekin teiltatua bertutuko du (EH Bilduren zuzenketa). Ondoren margoa eta komunak berritu, irisgarritasuna bermatzeko lanak egin eta sarbiderako sistema jartzeko asmoa du. **Altsasuko** Udalak, berriz, 300.000 euro (Geroa Bairen zuzenketa) jasoko ditu. Udaletzeko beheko solairua handitu, ganboikoan dagoen artxiboa behera



Aitziber elkarteak igerilekua legediara egokitzeke dirulaguntza jasoko du. ARTXIBOA

jaitsi, udaltzaingoaren bulegoa egokitu eta eraikinaren energia eraginkortasuna hobetu nahi ditu udalak. Lanek milioi bat eurotik gorako aurrekontua dute. **Olatzagutiko** Udalak kiroldegiko teiltatua berritzeko 60.000 euro jasoko ditu (EH Bilduren zuzenketa). Aspaldi dauden itajurak konpondu nahi dituzte. **Sakanako Mankomunitateak** lehen sektorearen diagnostia egiteko 40.000 euro jasoko ditu (EH Bilduren zuzenketa) eta Teknoadineko programarako guztira 69.000 euro jasoko ditu.

Aurrekontuetan **Aralarko santutegiko** aterpea berritzeko proiekturako 10 euro daude, baina urtean zehar handitzeko aukera errazago izanen du gobernuak. Urdiaingo **Aitziber elkarteak** igerilekuak legediara egokitu eta eraberritzeko 90.000 euro jasoko ditu (Geroa Bai eta EH Bilduren zuzenketa). Azkenik, **Biak Bat** elkarteak bi laguntza jasoko ditu, bata, 22.000 eurokoa, **Aztarnak uzten** programa berrirako eta, bestea, 24.947 eurokoa **Duna** programaren bigarren faserako.



UTZITAKOA

Sakana Group 'Anfas Tribuan'

Anfas elkartearen 'Anfas Tribuan' proiektuarekin bat egin du Sakana Group. Elkartetik adierazi dutenez, "programaren helburua da tokiko enpresak desgaitasun intelektuala duten pertsonen eta haien familiei laguntzea". Elkartekideek azaldu dutenez, "argazki horrek 70 pertsona baino gehiagoren bizi kalitatea hobetzeko konpromisoa adierazten du".

"Argi dugu: Sakanan bizi eta lan egin nahi dugu"

IÑAKI CLAVER HERRERA SUNSUNDEGUIKO LANGILEA

Etxean bi hilabete daramate. Informaziorik ez, eta langileen artean animorik ere ez. Aldi baterako enplegu erregulazio espedientea ilbeltzaren 19an bukatzen da

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Sunsundeguiako langile batzuk deitutako manifestazioa Altsasuko Foru plazatik aterako da abenduaren 22an, igandean, 12:00etan Deialdiaren zergatiak enpresan 11 urte daraman Iñaki Claver Herrerak eman ditu.

Zer moduz zaudete?

Suposatzen genuen egoera hau iritsiko zela. Hasieran ikusi genuen tunel akaberara iristen zela: edo ixten dute edo konponzen dute. Hartzekodunen konkurtsoa otsailaren 22ra arte luzatu dute. Eta konkurtsoan gaudenez erregulazio espedientea ezin da hain erraz luzatu. Inbertzailearen baten aukera argia balitz luzatzen saiatuko lirake. Bestela, ilbeltzaren 19an guztioi kitatze agiria emanen digute. Hori da suposatzen duguna. Baina ziur, ez dago ezer.

Sunsundegui eta Volvok akordioa iragarri zuten 2023an.

Langile ia gehienok helburuak lortzea oso zail ikusten genuen. Genuen lan kargarekin autobusak ateratzea ez genuen lortzen. Kontratu harrekin lan bikoitza izan behar genuen, behintzat antolakuntza modu berarekin jarraituz gero, ez legoke horrenbeste ekoizpenerako lekurik. 800 pertsona izanen ginela esaten zuten. Makinak dituzten enpresa batean lana aste batean ikasten duzu. Han, gutxienez, hilabete behar duzu, prestakuntzarekin. Oso-oso zaila ikusten zen. Egitasmoa erori zenean, alde batetik, lasaitu txiki bat hartu genuen, zuzenean otsoaren aho-joaten ginela iruditzen zitzaigulako. Produktua ongi ateratzeko diru pila sartu beharra zegoen. Pila bat aldatu behar zen, beste-ela ez zen ongi aterako. Autobusak ziren, baina egiteko modua guztiz desberdina zen. Lanik gehiena eskuekin egiten da. Proiektua automatizatuagoa zen. Berez, ongi dago. Baina kontrakoa sar-tzea oso-oso zaila da.



Joan zen ostiralean egindako elkarretaratzea.

Denborak arrazoia eman dizue.

Albistea iritsi zenean, harridura pixka bat, baina uste dut asko-erendako lasaitua izan zela: "behintzat ez dute diru gehiago sartuko, zulo handiagoa egiteko". Baina, ea orain zer gertatzen den. Hilabete batzuetan dena prestatzen egon ziren, pabiloiak eta makinak. Volvoren bi prototipo egin zituzten. Eta bat-batean guztia gelditu zen. Proiekturako kontratatutako jendea Sunsundeguiako plantillan sartu zuten, eta, ondorioz, langile gehiegi geunden.



"ENPRESAK KUDEAKETA TXARRAREKIN URTE ASKO DARAMA. GUK SUFRITU DUGU HORI"

Poloniako langileak gauzak erakustera eta muntatzera etortzen ziren, baina haiek bukatu zituzten prototipoak, dena jaso eta joan ziren.

Ilusiotik kezgara.

Ez da bakarrik Sunsundegui, azpikontratutako enpresak, eta enpresa hornitzaileak, 200 bat langile dira. Dendetan pila nabaritzen ari direla esaten dute. Guztia lotuta dago.

Zergatik erabaki duzue langile talde batek mobilizatzen hastea?

Salaketarik egin gabe, irudi zezakeen etxean ezer ez egin gabe gustura geundela. Horrek Enpresa Batzordearen borroka izan behar du. Baina lau sindikatu dira eta adostea gehiago kostatzen zaie. Erakundeetan borroka egiten ari dira. Nafarroako Parlamentuan ikertzeko eskaera aurkeztu zuten. Sodenak Sunsundegui 2019tik gaur arte eginiko diru ekarpenak aztertuko ditu Nafarroako Kontu Ganberak. Lanik egiten ez dugunez, behintzat pankartaren bat jarri, kontzentrazioak egiten hastea erabaki genuen. Jendeak oso ondo erantzun du. Eta animatu gara asteazkenero, 11:00etan, azokan bilkurak egi-

tea eta hilabeteen behin udal-erretze parean, ostiralean.

Zergatik manifestazioa?

Erakusteko ez gaudela ez lasai, ez eroso. Oso kezkatuta gaudela Sunsundeguiaren eta Sakanaren egoerarekin. Zeren Sunsundegui guztia arrastatuko du. Itxiz gero 400 pertsona kalera joanen dira, beste lantegiak pixkanaka erortzen joanen dira. Enpresa bat eroriz gero, besteetan lan baldintzak hobetzea zailagoa izanen da. Eta beste toki batzuetara joan beharra izanen da lan egitera. Argi dugu Sakanan bizi eta lan egin nahi dugula.

Sunsundeguiako langileek zer eskatzen diezue sakandarrei?

Enpresak kudeaketa txarrarekin urte asko daramatza. Guk sufritu dugu hori. Jendeak esaten du: "gobernuak hainbat milioi eman diete". Gu horrekin ez gaude konforme. Azken hamar urtetan Nafarroako Gobernutik 40 milioi inguru sartu dira, baino langileok soldataren %40 galdu dugu. Dirua sartu dute, baina langileok okerrago gaude. 400 pertsona gara, beste 200 enpresa hornitzaileetan, dendak... Guztiendako oso egoera txarra da. Sakandarrei elkartasuna eskatzen diegu. Gaur gu gara, bihar beste lantegi bat izan daiteke. Jendea elkartzen bada, gauzak errazago lor daitezke. Eta presio pixka bat sartu gobernuari. Ez dakit inbertitzailearen kontuarekin zerbait erraztu daitekeen. Norbaitek egiteko ahalmena badu, egin dezala.

BSHko kaleratu posibleen artean sakandarrak

Ufesa itxi zenean lantegi hartan hasi ziren lanean. Erabakia ezustekoa izan da langile eta gobernuarendako

SAKANA

Martxoaren 15ean 20 urte beteko dira Ufesa itxi zela. BSH multinazionalaren Etxarri Aranazko enpresan lan egiten zuten 159 langileetatik 38 BSHko Ezkirotzeko lantegira joan ziren lanera. Haietatik hogeit hamar langile galdituen dira, eta hogeit urteren ondoren BSHk gauza bera jakinarazi die: beraien lantegia itxi-ko du. Argudioa bera da: irabaziak izanda ere errentagarria ez dela. Aurretik lantegiko ekoizpena Poloniara eta Turkiara eramana du BSHk.

Guztira 655 langile joanen lirake kalera. BSHk itxiera prozesua sei hilabete egin nahi du, garagarriaren 16an lantegia itxeko. Egoera zaila zela aitortuta ere, erabakia ezustekoa izan da langileendako. Haiek *BSH ez itxi, Nafarroako industriaren alde* lelopean manifestazioa dute larunbatean, 12:00etan, Iruñeko Golemetik abiatuta.


DUELA 25 URTE...



Berrikuntzak LH institutuan







Altsasuko Lanbide Heziketako institutuan inbertsio handiak egin zituen Hezkuntza Departamentuak. Puntako makineria jarri zuten tallerretan. Horrela Lan Arriskuen Prebentzioarako Legean jasotakora egokitu zen zentroa. Horrekin batera ikastetxean ere egin ziren hobekuntzak. Garai hartan LHko ikastetxean Erdi Mailako hiru ikasketa egin zitezkeen: soldadura eta galdaragintza, mekanizazioa eta elektromekanika mantentze lana.

NEGUKO DENBORA-PASAK



SILABA-KA

Aurkitu hiru hitzak osatzeko falta den silaba



ESAERA ZAHARRA

Egin puzzlea beheko piezekin eta osatu esaera zaharra

B E
L A
L
U

K O
D U
P O

N
E R O T

N D U
Z

A
R A
R

T S
K O

R
I K

R O
B O
A

E
I E
B

A B E
K

Dermioen letra zopa

D M J J E S P I L L E T A I C I Q I R S
 Q I E L O R Z A A C J X V T B V X A Y M
 J D W R I D R U T S O R J U R L S L B N
 V L M H U H D P D Y B X D R Y A E E H M
 E I A I I S E A O B J B K R J T Y Z F K
 S K N R D D I G K G U R P I D E G A I N
 R S G R R I Q A C B K Z L X A O E D I D
 O U O E A D I G S W G P B A L L L R U P
 S M N B Z R W U R D P S J R W U I O U U
 C K E A I X B A Y S E B F Y L Z Z B L O
 F A A T L W Z R P M U G W N O R K D E A
 C R Z A D P W D P R K Y I N S A U H G M
 V K A A Y R Y A U D M E U A S N N T I O
 Z A R N G F R S F V G M Z B K O T B M R
 Q I R R Y N O O K B A Z Z E Y K Z C B L
 O T E U F I E L D K S A U W L Z A J R E
 J Z T H L A Z L R I V S Z N N A M W A K
 G Y A C M T U O U O L V R O N L S L D U
 K L W V G U E F Z J G S O X Z X C A B B
 V G Q L Y B Y H M G K V K H Q R K N B Z

- AMORLEKU
- ARKAITZ
- ATABERRI
- AZKONARZULOETA
- BASALEZE
- BEORKAMUNO
- BORDAZELAI
- BURUSOIL
- ELIZKUNTZA
- ELORZA
- ESPILLETA
- GURPIDEGAIN
- IGELU
- ITURRIXAR
- LIZARDI
- MANGONEAZARRETA
- MUSKILDI
- OSTURDI
- PAGAGUARDASOL
- SIASDEGIAK

Sudokuar

7	9						8
5				8	7	2	9
	3		5	2			6
9		3		7			4
	8				5		2
		7		4	8		9
3				9	1		7
4		9	2		6		1
	6						2

Erraza

	3	9		2			7
	4			9		7	3
8							1
	5			7			4
4					9		8
1				3			5
							2
3	9			2		1	7
5					6		4
						4	1

Zaila

Galdera Guztiak Ane Martija

Lortu dut, bai, ❶ _____ nuena
Gailurrera heldu naizela
❷ _____ denek behintzat
Baina negarrez dago ❸ _____

❹ _____ behar du bidea
Bideak badu ❺ _____
Hasieran saria buruan
❻ _____ bizitakoa

Zubi ilun denetan sarrera aurre aurrean
Non ote da, ordea, irteera?

Ez! Batzutan ez daukagu nahikoa
Behin amestutakoa gertu da
Baina hutsik badugu barrua
Guztia egongo da soberan

❷ _____ bada egi bihurtzea
Aspaldi ❸ _____ ametsa
Zailagoa gertu ❹ _____
❺ _____ genuen ez bezala
Zubi ilun denetan sarrera aurre aurrean
Non ote da, ordea, irteera?

Ez! Batzutan ez daukagu nahikoa
Behin amestutakoa gertu da
Baina hutsik badugu barrua
Guztia egongo da soberan



❶ bilatzen, aurkitzen, ikusten

❷ Esan dute, Diote, Zioten

❸ gorputza, bihotza, bizitza

❹ Garaipenak, Etorkizunak, Bideak

❺ garrantzia, egia, arriskua

❻ Amaieran, Bukaeran, Hasieran


❼ Egia, Zaila, Erraza

❽ bizitako, jazotako, jaiotako

❾ aurkitzen, bilatzen, galtzen

❿ Buruan, Gainean, Ondoan

GURUTZE-GRAMA



Horizontalak

- 1. Markos ... Espainiako Enduro txapelduna.
- 5. Sakanako herririk altuena.
- 10. 'Ai, hau ... nik!' Jose Luis Erdoziaren filma.
- 11. ... Zeberio Petriati, Altsasuko Berdintasun teknikaria.
- 12. ... Hamdi Hajji argazkiko Munduko kickboxing txapelduna.
- 14. ... Artea, Lakuntzako futbol taldea.
- 16. Etxarri Aranazko frontoiaren izena.
- 19. ... de Jauregi, Uharte Arakilgo antzinako emagina.
- 22. 'Guztia ...' Ane Martijaren azken abestia.
- 23. Olentzeroren laguntzailea.
- 24. 1992an Arakildik banandu zen herria.
- 25. Urte zaharrean Dorraon haurrak zarata egiteko erabiltzen dutena.
- 26. Urtarrilean ospatzen diren Lakuntzako festak.

Bertikalak

- 2. Etxeberrin zegoen gaztelua.
- 3. Jon Arretxeren detektibea.
- 4. ZETAk urtarrilean eskainiko duen kontzertua.
- 6. ... argazkiko abeslaria.
- 7. Urte berriari ongi etorria egiteko iturrian edaten dena.
- 8. Ane ..., argazkiko txirrindularia.
- 9. 'Izan ...!' Guaixeren bazkidetza kanpainaren leloa.
- 13. Arakil ibaia itsasoratzen den itsasoa.
- 15. ... Ganboa, argazkiko artzaia.
- 17. ... argazkiko bakarlaria.
- 18. ... Zaharren ibilbidea, Etxarri Aranazko ibilbide botanikoa.
- 20. Irati Igoak jokatzen duen futbol taldea.
- 21. Hiriberri Arakilgo elkarte.



HITZ EZKUTUA


B R A S A
 K O N T U
 Z A B O R
 ○ ○ ○ ○ ○

S A M I N
Z A T O R
 E G O K I
 ○ ○ ○ ○ ○

K A L T E
B U Z O I
 K O S T U
 ○ ○ ○ ○ ○

Aurkitu hitz ezkutua letra badago ○ letra bere lekuan dago

Non daude Sakanako baselizak?





LOTU ESANAHI BEREKO HITZAK

1. Gildde ___ Dirdir
2. Amimoro ___ Saguzarra
3. Zozokafia ___ Logura
4. Epats ___ Bazkari
5. Batia ___ Hitzontzi
6. Muxurketu ___ Urtarrila
7. Oixe ___ Korrokada
8. Biherba ___ Erdaraz
9. Ganbazelei ___ Armiarma
10. Birbir ___ Bedeinkatu
11. Logane ___ Zorina
12. Ilbeltza ___ Behar bada
13. Beriketua ___ Horixe
14. Jeyo ___ Amuarraina
15. Amurrei ___ Batera
16. Iñerexagu ___ Tentela
17. Bazkai ___ Gerezia
18. Erdias ___ Ganbara
19. Kike ___ Miazkatu
20. Berriketauntzi ___ Jaio



7 DESBERDINTASUNAK



TXIKIENEN TXOKOA



Margotu, moztu eta jarri zuhaitzan





Nagore Erdozia, sokako ariketan. Bera eta Ane Iturrioz ikusgarri aritu ziren. Hemendik aurrera uztaiekin hasiko dira lanean. ISKIZA

Iskizakoek soka askatu dute

GIMNASIA ERRITMIKOA Iskiza Sakanako Ane Iturrioz eta Nagore Erdozia gimnastek lan ederra egin zuten Nafarroa Arenan jokaturako Espainiako Banakako Gimnasia Erritmikoko Kopan. Bihar, larunbata, Iskizakoek Gabonetako erakustaldia dute Zelandin

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Abenduaren 10etik 15era Nafarroa Arenan Espainiako Banakako Gimnasia Erritmikoko Kopako finalak eta Espainiako Taldekako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatu ziren. Iskiza Sakanako Nagore Erdozia eta Ane Iturrioz Kopan lehiatu ziren, junior mailan, eta taldeko koordinatzaile Olaia Agirre "oso pozik" dago egindako lanarekin.

Soka, elementu zaila Espainiako Gimnasia Erritmikoko Federazioak kategoria bakoitzak urtero landuko dituen aparatuek finkatzen ditu. Aurten juniorrei soka lantzea zegokien. "Elementu zaila izaten da, sokak ezin duelako duen marrazkia eta forma galdu. Horregatik, agian, zigortuena izaten da. Ez da oso elementu ikusgarria. Normalean txikiei tokatzen zaien

elementua da, soka landuta koordinazioa lantzen delako, beste aparatuetarako ere ezinbestekoa delako. Ez da oso ohikoa kategoria handiei soka tokatzea, eta alde horretatik aurten sorpresa izan zen" aipatu du Agirrek.

Espainiako Koparako sailkatzeko aurten tokiak mugatuagoak ziren, eta Nafarroako Txapelketan txartel horiek lortzeko gogoz borrokatu behar izan zuten Nagore Erdoziak eta Ane Iturriozek. "Ohiko prestakuntza aurreratu behar izan genuen eta hasieratik topera hasi". Zorionez, finalerako sailkatzea lortu zuten.

"ANE ETA NAGORE SOKAREKIN ARITU ZIREN ETA EGINDAKOAREKIN OSO POZIK DAUDE"
OLAIA AGIRRE

Bi sakandarrek Nafarroa Arenan jokaturako kopan aurkeztu zuten koreografia Nafarroako Txapelketan aurkeztu zutenaren oso antzekoa izan zen. "Orain arte lehiatutako txapelketetan lana aurkeztu, eta epaileek zer baloratzen duten ikusten dugu, zerk funtzionatzen duen, eta horren arabera ariketa fintzen eta eraldatzen dugu, baina funtsa berdina da".

Abenduaren 10ean lehiatu ziren Nagore Erdozia eta Ane Iturrioz, txapelketako lehen egunean, asteartearekin. "Asteburuan baino jende gutxiago zegoen, giro gutxiago, eta nabaritzen da, baina euren gertuko jendea bertan egon zen, eta babes hori sentitzea beraiendako oso polita izaten da eta hori, guretako, nahikoa zen".

Iskizakoak oso ongi aritu ziren. "Biek pozik bukatu zuten. Na-

gorek oso ariketa ona egin zuten eta Anek akats txiki bat izan zuten, normalean ongi egiten duen gauza bat joan zitzaion, baina hunkituta bukatu zuten biek, gustura. Aurtengoa urte gorabeheratsua izan da euren dako eta lana ongi erakustea zen helburua; helburua betetzea eta disfrutatzea lortu zuten".

Nafarroa Arenan "oso gustura" aritu ziren. "Lehiatu garen toki guztien artean instalazio onenak ditu". Gainontzeko txapelketak ikustera gerturatu ziren baita ere. "Gimnasia erritmikoa gustuko dugu eta halakoetan disfrutatzen dugu, eta entrenatzailerak gisa ongi datorkigu halakoak ikustea, garrantzitsua baita ideiak hartzeko. Maila oso handia izan zuten txapelketek, eta Nafarroa oso ongi ibili da".

Eguberrietako erakustaldia

Abenduaren 21ean, larunbata, 12:30ean Iskiza Sakanak Gabonetako erakustaldia egingo du Zelandin. "Aurten talde pila bat gara. 110-115 gimnasta inguru bilduko gara. Iskiza Sakanako Altsasuko eta Arbizuko taldeez gain, Olaztiko Sutegi taldea gonbidatzen dugu. Eskolako taldeak, Nafarroako Kirol Jokoetako hiru lehiaketa taldeak, banaka lehiatzen diren bost gimnasta, eta Olaztikoak. Guztiek bere lana eskainiko dute". Urtero moduan, Zelandi beteko da.

Araudi berria

2025 urtea indartsu dator, Nafarroako Kirol Jokoetako txapelketekin. Gainera, Parisko Olinpiar Jokoak izan direnez, Nazioarteko Gimnasia Erritmikoko Federazioak araudia berri du datozten lau urteetarako, Los Angeleseko Olinpiadak pasa arte. "300 orrialde baino gehiagoko txostena da. Araudi berria ulertzen eta aplikatzen ari gara". Lan zaila dute aurretik, baina monitoreak gogotsu daude. "Azken urteetan egindakoarekin pozik gaude, eta datorenarekin oso motibatuta". Monitoreen lana izugarria da, askotan agerikoa ez dena, baina aitortu beharrekoa.

"GABONETAKO ERAKUSTALDIAN 115 GIMNASTA ARIKO DIRA. EMOZIONATUTA DAUDE"
OLAIA AGIRRE

LABURREAN

Larraza, Nafarroako txapeldunordea



Abenduaren 15ean 30 metroko Banakako Paleta Goma Txapelketako finalak jokatu ziren Biskarreten. Junior mailan Maialen Larraza etxarriarrak (Gure Pilota) Maria Eguzkiza (Larraun) izan zuten aurkari. Eguzkiza gailendu zen, bi set-ak irabazita (15-9 eta 15-5). Asteburuan 20. Sakana Neska Pala Txapelketako finalerdiak jokatu dira.

Unai Zubiria, Bidezarrako pitxitxia



Unai Zubiria Gartzandia aurrelari lakuntzarrak Bidezarra futbol taldean jokatu du, hirugarren mailan. Aurretik Lakuntzako Lagun Artean eta Gasteizko Aurrera taldeetan jokatu zuten. Egun, hirugarren mailako ligako pitxitxia da lakuntzarra, bederatzi golekin. Bidezarra zortzigarren da, eta sailkapenean gora egin nahi du.

Anai Mazkieran, Nafarroako txapelduna



Abenduaren 15ean Nafarroako Ziklo-kros Txapelketa jokatu zen Artikan. Sakanako txirindulari dezente hartu zuten parte, eta kimuen mailan Burunda-Quesos Albeniz taldeko Anai Mazkieran Dieguez altsuarra izan zen txapelduna. Klub sakandarrak abenduaren 22an, igandea, V. Urdiain Ziklo-krosa antolatu du 9:15etik aurrera.

EMAKUME PREFERENTEA

10. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Idoya 4-2

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1 Altsasu 23

2 Gazte Berriak 22

HURRENGOA

ABENDUAK 22. IGANDEA

20:00 Burlades - Altsasu (Ripagaina)

Altsasuk lidergoa berreskuratu du

Altsasuk sailkapeneko buru izaten jarraitzeko, Burlades mendean hartu beharko du etzi.

GIZON ERREGIONALA

13. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Etxarri Aranatz - Altsasu 2-2

Amaya - Lagun Artea 3-3

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Altsasu 37

3 Etxarri Aranatz 31

6 Lagun Artea 23

HURRENGO JARDUNALDIA

ILBELTZAREN LEHEN ASTEBURUAN

Altsasu - Alde Zaharreko Kluba (Dantzaleku)

Univ. de Navarra B - Etxarri (Univ.)

Lagun Artea - San Jorge

Etxarri Aranatz vs Altsasu, derbi itzela

Etxarri Aranatzek eta Altsasuk larunbatean jokatutako derbiak azken unera arte emozio itzela izan zuen. Urrestarazuk Etxarri aurreratu zuen, baina Etxaizek bana berdindu, eta Calvok sartutako golari esker 1-2 aurreratu zen Altsasu. Partida bukatzean zela Altzelaik berdinketaren gola sartu zuen. Bi taldeak ikusgarri aritu ziren, eta goiko postuetan segitzen dute.

Lagun Artea, bosgarren

Lakuntzarrek bolada onean segitzen dute, eta azken unean garaipen zaporea duen berdinketa lortu zuten Amayaren kontra, Agirre, Andueza eta Albenizen golei esker.

ARETO FUTBOLA

Autonomikoan, derbia Arbizurendako

Hirugarren mailan Aralar Mendik ezin izan zuen Ibararte mendean hartu. Lehen maila autonomikoan Arbizu Kirol Taldeak Altsasu hartu zuen ostiralean. Lehia estuan, 4-2 irabazi zuen Arbizu liderrak, eta Altsasu hirugarren da. Ilbeltzera arte atsedena dute bi kategoriek. Emakumezkoen lehen senior mailan Xotak 1-7 irabazi zion Tafari partida ikusgarrian. Abenduaren 22an, 12:00etan, arerio zuzena den Gazte Berriak taldea hartuko du Xotak Irurtzungo Atakondoan.

Txapelak eta diplomak Sakanara iritsi dira

PILOTA Nafarroako Kirol Jokoetako Buruz Buruko Txapelketetan eta Baztango Txapelketan oso fin aritu dira pilotari sakandarrak. Abenduaren 20an Buruz Buruko hirugarren faseko diplomak jasoko dituzte Labriten

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Egunotan makina bat pilota txapelketako final jokatu dira. Tartean, Nafarroako Kirol Jokoetako (NKJ) Eskuz Banakako Txapelketako benjaminen txapela Arbizuko Aldabide klubera iritsi zen, Hodei Loidik bi setetan hartu baitzuen mendean Abaxitabidea klubeko Narvaez (9-3 eta 9-6).

Aldabidera iritsi den beste garaipen garrantzitsua XLIII. Baztango Txapelketako haurren B mailako txapela izan da, Oier Mendinuetak eta Iker Loidik (Arbizu) Xanet Aranburu eta Ibai Artola (Lazkao) mendean hartu baitzituzten.

Bestalde, NKJ-etako Buruz Buruko Txapelketako hirugarren fasea bukatu zen asteburuan, ligaxkan jokatu dena. Abenduaren 20an kategoria guztietako lehen sailkatuei diplomak banatuko zaizkie Labrit pilotalekuan. Lehen postuan geratu direnen artean kimuetan Erbiti (Irurtzun), Xuban Sanchez (Aldabide) eta Moral (Irurtzun) daude; benjaminetan Aratz Gartzandia (Aldabide), Cobos (Irurtzun), Tasio Arbizu (Aldabide), Goikoetxea (Irurtzun) eta Suhar Arrizabalaga (Aldabide); infantiletan Beloki (Irurtzun), Osinaga (Irurtzun), Oier Beramendi (Pilotajauku) eta Unax Azkona (Pilotajauku); eta kadeteetan Egoi Ur-



Oier Mendinuetak eta Iker Loidi, Olaizola eta Laso alboan dituztela, Baztanen. ALDABIDE



Hodei Loidi, txapelarekin. ALDABIDE

tasun (Aldabide).

Binakakoan ez da emoziorik falta

Binakako Txapelketan laugarren jardunaldia dago jokoan. Gorenean dauden Ezkurdia-Rezusta ikusgarriek Peña-Albisu dituzte aurkari larunbatean Labriten. Hirugarren diren Elordi-Zabaleak Laso-Iztuetaren kontra jokatuko dute egun berean Lekeitioan. Eta punturik gabe zuloan dauden Etxeberria-Martijak Jaka-Imazen kontra jokatuko dute gaur, ostirala, Oartzun.

LABURREAN

Mendigoizale egunean, mendeurrenari agur



Igandean Aralarako San Miguel santutegia mendizaleen topaleku izango da 57. Mendigoizale Egunean. Ekitaldia Federacion Vasco Navarra de Alpinismoren (FVNA) mendeurrenako azken ospakizuna izango da. Mendizaleak toki ezberdinetatik abiatuko dira Aralarrera. 11:00etan euren meza izango da, eta ondoren auzate ederra.

Ziordian Duchenne erakundearen alde



Ziordia Gabonetako Areto Futboleko Elkartasun Txapelketan aurtien Duchenne gaixotasuna duten Famili Mugimendua erakundea lagunduko dute. 40 sari baino gehiago zozketatuko dira euro batean salgai jarriko diren txarteletan. Abenduaren 28an 9:00etatik 20:30era jokatuko da txapelketa, eta hamahiru talde lehiatuko dira.

Hamdiren errebantxa ikusgarria Abu Dhabin



Mohammed Hamdi irurtzundarrak Kickboxing K1 nazioarteko borroka profesionala irabazi zuen asteburuan Abu Dhabiden. Iuri Fernandes portugalدارra izan zuen arerio, pisu astuna kategorian. "Udan bere kontra galdu nuen Lisboan, eta orain arte galdu gabe zegoen arerioa irabazita, errebantxa ederra lortu dut top mailako ekitaldian" dio, pozik.

Altsasuko ring-ean nagusi

BOXEO / KICKBOXING

Altsasuko Burunda pilotalekua goraino bete zen Kanku Gym gimnasioak hainbat babeslerekin batera larunbatean antolatutako boxeo eta kick boxing beilaldirako. Sakanako borrokalarien artean Jon Arraiza lakuntzerra ring-ean mustu zen lehenengoz. Eta nola, gainera, garaipen sendoa lortu baitzuen, bera animatzera joan ziren kuadrillakoen gogamenerako.



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN.Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultu-
ra@guaixe.eus

OSTIRALA 20

LAKUNTZA Zinekluba.

Haurrendako zinekluba.
18:30ean, liburutegian.

ALTSASU Filmaren emanaldia.

Ai, hau pena nik! Jose Luis Erdoziaren Etxarri Aranazko hizketaren inguruko filmaren emanaldia. Azpigituluak euskara batuan. Sarrerak: 3 euro.
19:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 21

ALTSASU Gimnasia erritmikoa.

Iskiza Sakanako Gabonetako gimnasia erritmikoko erakustaldia.
12:30ean, Zelandi kiroldegian.

OLATZAGUTIA Bubble balls.

Kiroldegian.

17:00 7 eta 12 urte bitarteko haurrak.

19:00 12 urte baino gehiagoko gaztetxoak.

ALTSASU Kontzertua.

Gabonetako kontzertua Sakanako Haize Berriak Bandarekin eta Erkudengo Ama Abesbatzarekin. Zuzendariak: Jasone Etxebeste eta Inma Arroyo. Sarrerak: orokorrak, 5 euro; 25 urtetik beherakoak eta bandako bazkideak, 3 euro.
18:00etan eta 20:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda.

Gazte zinema.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Xake txapelketa.

XXIV. Sakanako Xake txapelketa.

Sakanako Mankomunitateak antolatuta, Zaldi Beltza Xake Taldearen, Nafarroako Xake Federazioaren eta Larrañeta

elkartearen laguntzarekin. Aldi berean Nafarroako ELO 1900 Txapelketa izanen da. Txapelketa azkarra: 15 minutu + 5 minutu jokaldiko zortzi partida. Larrañeta elkartean.
09:30 Izena ematea.
10:00 Txapelketa.

IGANDEA 22

UHARTE ARAKIL Mendigoizale Eguna.

57. Mendigoizale Eguna. Nafarroako mendi klubak toki ezberdinetatik igoko dira Aralarko santutegira; mendizaleen aldeko meza, auzatea eta musika. Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak eta Euskal Herriko Mendi Federazioak antolatutako ekitaldia.
11:00etan, Aralarko santutegian.

LAKUNTZA Ginkana.

Amalurraren sekretua ginkana mitologikoa. 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoendako. Izena ematea: liburutegian.
12:00etan, plazan.

ALTSASU Ikuskizuna.

Ad Libitum Lapso Produccionesen familiararteko ikuskizuna: Antzerkiaren, umorearen eta zuzeneko musikaren arteko konbinazioa egiten dute hiru artista eszentrikok. Sarrerak: 7 euro.
12:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Manifestazioa.

Sunsundeguiko langileen manifestazioa.

12:00etan, Foru plazan.

LIZARRAGA Tailerra.

17:30 Olentzero eta Mari Domingiri marrazkiak egiteko txokoa, Iturri Txokoa elkartean. Ondoren, txokolate jana.

ALTSASU Gazte agenda.

Party zozketa.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Aurtengoan bai! Etxarri Aranazko

Abesbatzaren Gabonetako kontzertua, Abesbatza Txikiaren parte hartzearekin.

19:00etan, elizan.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN*¿Es el enemigo? La película de Gila*Igandea 22 19:30
Asteazkena 25 19:30*¿Quién es quién?*Osteguna 26 19:00
Igandea 29 19:30*Superklaus*

Igandea 29 17:00

*Mufasa*Asteazkena 1 17:30
Osteguna 2 17:00
Osteguna 2 19:00
Astelehena 6 17:00*Cónclave*Osteguna 9 19:00
Igandea 12 19:30
Astelehena 13 19:30*Sonic 3 la película*

Igandea 12 17:00

Las vidas de Sing Sing

Osteguna 16 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN*Cuando nace el otoño*

Igandea 22 19:30

*Verano en diciembre*Osteguna 26 19:00
Igandea 29 19:30*¿Quién es quién?*

Asteazkena 1 19:30

*Las hijas del Califato*Osteguna 9 19:00
Igandea 12 19:30*Cónclave*

Igandea 12 17:00

Oh Canada

Osteguna 16 19:00

ASTELEHENA 23

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ALTSASU Ipuin kontaketa ilustratua.

Ipuinekin marrazketa! Ipuin kontaketa ilustratua Lur Korta eta Maitri Ugaldearekin.
12:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 26

IHABAR Doneztebe edo San Esteban.

Doneztebe herriko patrioaren eguna.



UTZITAKOA

ALTSASU Fluxu arte garaikideko zirkuitua: Elba Martinez

– Erakusketa hedatua:

Ekialderantz.

Abenduaren 16tik urtarrilaren 12ra. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

URDIAIN Marrazki bilduma: Bixen Gallo, Tomas Etxarri, Pili Leal, Emiliano Ramos eta Joxean Donloren marrazkien erakusketa.

Abenduaren 22ra arte. Kaluxa tabernan.



12:00 Meza.

14:00 Herri bazkaria, bajeran.

Ondoren, haurrendako tailerrak eta Ihabar Kantuz.

Arratsaldean, herriko disko jartzailea.

ALTSASU Haur parkea.

12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, lortia zabalgunean.

IRURTZUN Haur parkea.

Gabonetako haurrendako parkea.
17:00etatik 20:00etara, pilotalekuan.

LAKUNTZA Mus txapelketa.

Mus txapelketa; 16 urtetik gora. Izen ematea: 684 10 01 12 (Oihan), 10 euro bikoteko. Sariak: Txerrikumea, eta bi ardo botila. Biltokik antolatuta.
17:00etan, Biltoki gaztetxean.

IRURTZUN Liburu aurkezpena.

Juana Jon Artanoren liburuaren aurkezpena. Aizpea Euskara taldeak antolatuta, Euskal Ekitaldiak jardunaldien barruan.
18:30ean, Pikuxar elkartean.

LAKUNTZA Dokumentala.

Arg(h)itzen Sakanan auzolanean torturari buruz egindako dokumentala, Mikel Arregi eraiketaren 45. urteurrenaren harira, Mikel Arregi Gogoan ekimenak antolatuta.
18:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Bakarriketa.

Haritza Comedy: Inixioren bakarriketa saioa. Gonbidapenak, Haritzan.
20:30ean, Haritza tabernan.

OSTIRALA 27

ALTSASU Areto futbola.

24 Ordu Futsal Txapelketa. Izena ematea: 649 019 833; taldea, 120 euro. Sariak: txapelduna, 400 euro; txapeldunordea, 120 euro. Futsal Altsasu taldeak antolatuta.
16:00etatik 21:00etara, Zelandi kiroldegian.

LAKUNTZA Mus txapelketa.

Mus txapelketa; 16 urtetik gora. Izen ematea: 684 10 01 12 (Oihan), 10 euro bikoteko. Sariak: Txerrikumea, eta bi ardo botila. Biltokik antolatuta.
17:00etan, Biltoki gaztetxean.

ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexualitate aholkularitza zerbitzua.
17:30etik 20:30era, Intxostiapunta gazte gunean.

DORRAO Tailerrak.

Haurrendako tailerrak. Izena eman: Itur Aldea elkartean.
17:00 Plastilina jokoak.
18:30 Kamiseta tindaketa.

ARBIZU Ipuin kontaketa.

Lur Korta ipuin kontalariaren ipuin kontaketa.
17:30ean, liburutegian.Er[✓]iti aluminio PVC

Akaborro industrialea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Kalitatea, harrera ona
eta prezio ezin hobea

LAKUNTZA Mahai ingurua.

Kirola eta balio etikoak mahai ingurua: Jose Manuel Gonzalez Aramendia kirol medikua eta kirol ezberdinetako protagonistak.
19:00etan, Lakuntzako Pertza elkartean.

ALTSASU Bertso saio musikatua.

Ez da kasualitatea Bertso saio musikatua Alaia Martin (Gipuzkoako txapeladuna), Sarai Robles eta Miren Artetxe bertsolariekin, Amaia Agirre gai jartzeilarekin: Gitarra, biolin eta saxo doinuaren gainean inprobisatzen dute bertsolariak. Umorea, jolasa, gogoeta, bertsolari feministen arteko konplizitatea, musika eta bertsoa uztartzen ditu. Sarrerak: 5 euro.
19:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Proiekzioa.

Joseba Arlegiren proiektio emanaldia. Pikuxar elkarteak antolatuta, Pikugabonak egitarauaren barruan.
19:30ean, Pikuxar elkartean.

LARUNBATA 28**ZIORDIA Futbol txapelketa.**

Ziordia Gabonetako Areto Futboleko Elkartasun Txapelketa, Duchenne Famili Mugimendua erakundearen alde. Taldeak: Sutegi, Arbizu, Lagun Artea, Haserri, Sallurti, Arbizu T, Ziordia, Lagun Artea, Agurain 2016 A, Sutegi, Agurain 2026, Ademar Maristas eta Arbizu Kimuak. Zazpi jardunaldi. 40 sari baino gehiago zozketatuko dira; txartelak salgai euro baten truke.
09:00 Txapelketaren hasiera.
16:45-17:30 Txokolate jana, frontoian.
20:30 Txapelketaren amaiera.

IRURTZUN Frontenis.

Irurtzango X. Frontenis Txapelketa. Asier Galarzak antolatuta. Etxarren, Latasa, Aldatz, Lakuntza, Uharte Arakil, Etxarri Aranatz, Lekunberri, Arbizu eta Irurtzango pilotalekueetan jokatu da. Gehienez 64 bikote. Izena ematea: 699 453 490 (Whatsapp). Sariak: 800 euro eta txapela; 400 euro, eta 150 euro. Kontsolazio txapelketa finalistendako sariak.
08:00 Txapelketaren hasiera, frontoietan.
20:00 Finala, frontoian.

ALTSASU Areto futbola.

24 Ordu Futsal Txapelketa. Izena ematea: 649 019 833; taldea, 120 euro. Sariak: txapelduna, 400 euro; txapeldunordea, 120 euro. Futsal Altsasu taldeak antolatuta.
09:00etatik 21:00etara, Zelandi kiroledegian.

ETXARRI ARANATZ Pala txapelketa.

20. Sakana Nesken Pala Txapelketako finalak. Ondoren, sari ematea eta palisten bazkaria.
10:00etatik aurrera, Euskalerriri frontoian.

ARBIZU Haur parkea.

Haurrendako gabonetako parkea: puzgarriak...

ALTSASU Kontzertua.

Trasteando taldearen elkartasun kontzertua. Irabaziak Caritas erakundearendako izanen dira, Valentziako tanta hotzagatik kaltetuei bideratzeko. Sarrerak: 8 euro (sarrera gutxi geratzen dira).
19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda.

Agur 2024 festa. 3 euro.

22:00etatik 01:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

IGANDEA 29**LIZARRAGA Zinema.**

Gabonetako zinea: *Iparburuko Trena* filmaren emanaldia.
17:30ean, eskoletan.

IRURTZUN Bertso desafioa.

Bertso desafioa. Pikuxar elkarteak antolatuta, Pikugabonak egitarauaren barruan.
18:30ean, Pikuxar elkartean.

ASTELEHENA 30**BAKAIKU Tailerra.**

Txoriendako janlekuak tailerra, Aiztiren eskutik. Izena eman: 613 096 968 (Whatsapp); 12 euro.
16:30ean, elkartean.

LAKUNTZA Batzarra.

Hatortxurock-en inguruko batzarra.
19:00etan, kultur etxean.

OSTEGUNA 2**ETXARRI ARANATZ Haur parkea.**

Haurrendako gabonetako jolas parkea.
11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara; inklusibitate batzordeko tarte lasaia: 11:30etik 12:00etara eta 16:00etatik 16:30era; frontoian.

BAKAIKU Tailerra.

Kandela aromatikoak tailerra, Aiztiren eskutik. Izena eman: 613 096 968 (Whatsapp); 15 euro.
16:30ean, elkartean.

IRURTZUN Zinema euskaraz.

Bufalo Kids filmaren emanaldia euskaraz.
17:30ean, kultur etxean.

ARBIZU Zinema.

Haurrendako zinema
18:00etan, udaletxean.

LAKUNTZA Ipuin kontaketa.

Ipuinak alderantziz burutik oinetara jantziz Jasone Urtasunen ipuin kontaketa.
18:30ean, liburutegian.

OSTIRALA 3**IRURTZUN Futbola euskaraz.**

Euskaraz futboleko: haur guraso eta heldu euskaldunen arteko partidak. Aizpea euskara taldeak antolatuta,

Euskal Ekitaldiak jardunaldien barruan.
12:00etan, kiroledegian.

ALTSASU Gazte agenda.

Bingoamenez, Gozamenez programaren barruan.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IRURTZUN Film laburren emanaldia.

Urko Mauduiten film laburren emanaldia. Pikuxar elkarteak antolatuta, Pikugabonak egitarauaren barruan.
19:30ean, Pikuxar elkartean.

LARUNBATA 4**ALTSASU Saskibaloia aurkezpena.**

CBASK 2024/2025 denboraldiko taldeen aurkezpena.
16:00etan, Zelandi kiroledegian.

BAKAIKU Tailerra.

Xaboi naturalak tailerra, Aiztiren eskutik. Izena eman: 613 096 968 (Whatsapp); 18 euro. 13 urtetik gora.
16:30ean, elkartean.

ALTSASU Kontzertua.

Haize Txikiak Bandaren kontzertua. Zuzendaria: Raquel Arbeloa. Sarrerak: 3 euro.
18:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda.

Bingoamenez, Gozamenez programaren barruan.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ASTELEHENA 6**ETXARRI ARANATZ Mendi irteera.**

Sakanako Mendizaleak taldearen urteberriko mendi irteera: Beriain.
09:00etan, Larrañeta elkartean.

ASTEAZKENA 8**ALTSASU Irakurketa.**

Elba Martinezen *El pajarito que encontró su miga* poema bildumako testuen irakurketa, FLUXU arte garaikideko zirkuituaren barruan egin duen Ekialderantz erakusketaren amaiera ekitaldiaren barruan.
18:30ean, lortia kultur gunean.

OSTIRALA 10**ALTSASU Gazte agenda.**

Play txapelketa.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

LARUNBATA 11**ALTSASU Gazte agenda.**

Play txapelketa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Antzerkia.

Del color de la leche Tanttaka Teatroyen antzezlanaren emanaldia: Nell Leyshonen eleberrian oinarrituta. Sarrerak: 12 euro.
19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 12**OLATZAGUTIA Erakusketa.**

VI. Txori erakusketa-trukaketa, Aralarko mendizerra ornitologia elkarteak antolatuta. Kontakua: 606 952 673 edo 692 761 252 (Whatsapp).
08:00etatik 14:00etara, frontoian.

ASTELEHENA 13**ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEAZKENA 15**ETXARRI ARANATZ Tailerra.**

Eskulan tailerra eta puzzleak.
17:00etan, liburutegian.

OSTIRALA 17**ETXARRI ARANATZ Ipuin kontaketa.**

Ipuin kontaketa eta marrazkiak margotu.
17:00etan, liburutegian.

ALTSASU Gazte agenda.

Tramankuluren *escape room*-a. Aurretik izena eman; 6-8 pertaideko taldeak.
17:30etik 18:30era; 19:00etatik 20:00etara, eta 20:30etik 21:30era; Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Antzerkia.

Almazanean antzezlanaren emanaldia, Zuhaitz Gurrutxaga eta Iker Galartza antzezleekin. Sarrerak: Etxarri Aranazko udalaren webgunean.
19:00etan, kultur etxean.

Hurrengo
GUAIXE astekaria
Urtarrilaren 17an
argitaratuko da



ESKELA



Carlos Alonso Herrera

'Jubeto'

"Sagarminak biltzen jarraituko dugu zuk erakutsi zenigun lekuan"



Ramos industrial eta zure zure lankideak

Altsasu

ESKELA



Haizea Kontxa Jasone Carmen Lorenzo

"Zuen lekua gure bihotzetan ez da inoiz hutsik egongo"

Lopetegi Olasagarre senideak

Lakuntza

ESKELA



Carlos Alonso Herrera

(2024ko abenduaren 12an hil zen)

Josefina Arregui klinikako zure lankideok ez dugu inoiz ahaztuko eman diguzun guztia

Josefina Arregui klinikako zure lankideak

ESKELA



Carlos Alonso Herrera

(2024ko abenduaren 12an hil zen)

Zure umiltasunagatik, konpromezuagatik eta lanagatik betirako eskertuta.

Betiko gure bihotzetan



Josefina Arregui klinikako patronatoa



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

MEKANIKARI LANPOSTUA

Kamiolari eta autobus tailerra mekanika, txapa eta margo ezagutzak dituen langile bila. Sakanan. Curriculumak: tallerccamion10@gmail.com / 948 507 019

HIGIEZINAK

ALOKAIRUA

Zure autokarabana, karabana edo furgoneta gorde nahi duzu? Iturmendin, pabiloi itxi batean plazak alokatzen dira, 24orduko alarmarekin. Deitu! 646 843 579.

IKASTAROA

Dorraon haurrentako tailerrak: Itur Aldea elkarteak antolatuta, abenduaren 27an. Parte har-

tzeko izena eman behar da.

Helduentzako Euskal Dantza ikastaroa Olaztin: Informazio gehiago eta izen emateak Olaztiko udaletxean.

Pintura ikastaroa Olaztin: Udalak antolatutako ikastaroaren inguruko informazioa eta inskripzioa www.olazti.com web orrian edo udaletxean.

OHARRAK

Su hartu zuen Arberoa ikastola laguntzeko kanpaina: Kalte material izugarriak izan zituzten sutearen ondorioz eta bertako familiek sostengu kanpaina martxan jarri dute, online denda honetan: arberoadenda.wixsite.com/ikastola, diru ekarpenak egiteko kontu zenbaki honetan: FR76

1005 7195 2500 0202 0160 520 edota materiala eman nahi duenak haiekin harremanetan jarri daiteke arberoakoi-kastola@gmail.com.

Sarek deitutako manifestaziora joateko autobusa: Bilbon egingo den Bakea. Konponbidea. Elkarbizitza leloa duen manifestazioa urtarrilaren 11n. Etxarri Aranatzen txartelak salgai daude iada.

Odol emateak Etxarri Aranatzen: Urtarrilaren 10ean eta 16an, 17:00etatik 21:00etara.

Odol emateak Irurtzun: abenduaren 20ean, 16:45etik 21:00etara.

Iturmendin mintzakide taldea sortu dute: Ostegun arratsaldetan, kafe-tegian bildu eta euskaraz hitz egiteko.

Altsasuko Udalak ikastetxei zuzendutako dirulaguntzak emateko deialdia zabaldu du: Ikasturte honetan garatuko diren jarduerak laguntzeko da. Dirulaguntza deialdiaren oinarriak eta informazioa www.altsasu.net webgunean.

Iturmendiko osasun etxeak telefono zenbaki berria du: Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo udalek jakitera eman dutenez. Osasun arreta eskatzeko 948 633 038 zenbakira deitu behar da hemendik aurrera.

Arbizuko Utzubar Ekogunean konposta eskuragarri: Sakanako Man-komunitateko Hondakin Zerbitzuak gogorarazi du, nahi duen guztiak urte guztian zehar konposta eskuragarri duela bertan.

Informazio gehiago nahi duenak info.hondakin@sakana-mank.eus e-postara idatz dezala edo 900 730 450 telefonora hots egin dezala.

SOS GAZA. Gernika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa plataformarekin batera Elkartasun Aktiboa iniziatiba martxan jarri du: Netanyahu nazioarteko epaileen aurrean eramateko, Gazan elkartasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren birtartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpene ekonomikoa egiteko, Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrontean dirua sar dezakezu, edo zure banketxearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMAN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa

bilatu eta 08737 kodea erabili dirua eman.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkarrekin zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita dudenari %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

HERIOTZAK

• Carlos Alonso Herrera, abenduaren 12an Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

"Musikak atmosfera sortzen laguntzen du"

SARAI ROBLES BERTSOLARIA

Alaia Martin eta Miren Artetxe bertsolariekin batera 'Ez da kasualitatea' bertso saio musikatuan izanen da, abenduaren 27an, lortia kultur gunean

Eneida C. M. eta E. R. B. ALTSASU

Ez da kasualitatea emakume bertsolarien bertso saio musikatu izanen da abenduaren 27an, ostirala, 19:00etan, Iortia kultur gunean. Oholtzaren gainean Alaia Martin, Gipuzkoako txapeldun berria; Miren Artetxe, eta Sarai Robles bertsolaria eta Amaia Agirre gai jartzailea izanen dira, eta musikariak Ixak Arruti gitarra jolea eta Gari Otamendi biolin jolea izanen dira. Saioan bertsoak eta musika uztartzen dira; bertsolaria "uneoro" musikaz lagunduta daude, Roblesekin azaldu duen bezala. Sarrerak Iortian webgunean edo txarteldegian eros daitezke 5 eurotan.

Zer da bertso saio musikatu bat?

Egia da urte batzuk daramatzagula saio musikatuak egiten, baina oraindik berritasun bat da toki askotan, eta guretzat ere bai. Bertsoarekin batera uneoro bi musikari izaten dira; bi musikariek bertsolariok laguntzen digute. Bai bertsoak abestu bitartean bai gaiak entzun bitartean bai tarteko isiluneetan. Normalean bertso saioetan nahiko isilune izaten dira, gu pentsatzen ari garela, eta isilune hori musikak betetzen du. Doinuak ere bereziak dira, musikalki jotzeko moduko doinuak izan behar dira, eta horren arabera aukeraketa egiten da.

Bertsolarien eta musikarien artean koordinazioa egon behar da, ezta?

Musikarien meritua da, erabat. Bertso saio hauetan egoten diren musikariak sekulakoak dira, eta badakizkitez gure keinuak eta gure erritmoa jarraitzen. Trabatzan bagara badakitez haiek ere musika berrartzen dagokion tokian. Izan ere, haiek geldituko balute deskoordinazioa egongo zen. Oso-oso adi egoten dira: noiz bukatzen dugun, noiz goazen hastera, noiz ari zaigun doinua joaten... Eta moldatzen dira. Oso onak dira.

Dena inprobisazioa da edo zerbait idatzirik dago?



Sarai Robles bertsolaria. JOSU SANTESTEBAN / NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

"BERTSO SAIO BAT DA, GAIA MOMENTUAN EZAGUTZEN DUGU; BAINA MUSIKAREKIN LAGUNDUTA"

Den dena inprobisazioa da. Edozein bertso saio bezala, dena da inprobisatua. Normalean egun batzuk lehenago musikariek eskaleta antzeko bat egiten dugu bakoitzak zer ordenean abestuko dugun esanez eta haiek badute hasierako egurra doinu honetan izango dela, Mirenen eta Alaiaren arteko ofizioa beste doinu honetan... Hori bai. Baina gaiak saiora arte ez ditugu ezagutzen; ez dakigu zertaz abestuko dugun. Bertso saio bat da; gaia momentuan entzun eta doinuarekin kantatzen dugu. Guretzako erronka bat da kantatzen hastea musikak eskatzen duenean. Gainera, bertsolariok orokorrean ez dugu musikan jakintza berezirik. Entonatzeko ere erronka bat izaten da; saioaren aurretik musikariek tonua hartzen dugu eta gero tonu horietan abesten saiatzen gara.

Nola daramatzazu saio hauek?

Izugarri gustatzen zaizkit. Entzuleentzat oso gozagarria da musikak asko laguntzen duelako atmosfera bat sortzen. Aldatzen doa. Baina pixka bat gehiago urduritzen naiz edo erronka bat bezala hartzen ditut.

Saioa 'Ez da kasualitatea' deitzen da. Zergatik?

Duela urte dezente sortu zen saio berezi bat bezala. *Ez da kasualitatea* horrek egiten dio erreferentzia oholtzan denak bertsolaria eta gai jartzaileak emakumeak direla. Hori da daukan berezitasuna: ez da kasualitatea denak neskak izatea. Garai batean sortu zen, eta oraindik ere ez da oso ohikoa, saio normal batean denak emakumeak izatea, nahita antolatuta dela ez bada. Helburu horrekin sortu zen, eta jarraitzen du.

Nolako saioa izango da?

Maila altuko saioa izango da. Miren eta Alaiaren aldetik hala izango da, eta espero dut alturan egotea. Hitz jokoetarako sekulako gaitasuna dute, mezua transmititzeko sekulako gaitasuna eta uste dut oso polita izango dela. Amaia Agirre gai jartzaile oso ona da. Elementu guztiak ditu bertso saio oso polita izateko.

Aurten bai Eguberrietan gabon kantak interpretatuko dituzte

Haize Berriak Bandak eta Erkudengo Ama koroaren, eta Etxarri Aranazko Abesbatzaren kontzertuak bihar eta etzi

SAKANA

Eguberrien atarian kontzertua ematen bazuen ere, Haize Berriak bandak ez zituen gabon kantak interpretatzen. Aurten Erkudengo Ama Abesbatzarekin elkartu eta gabonetako kontzertua emanen dute bihar, abenduak 21, larunbata, 18:00etan eta 20:00etan, Iortian. Abesbatzak, Inma Arroyoren zuzendaritzapean, eta banadak, Jasoen Etxebeste zuzendari berriarekin, "gabonen bihotzera" eramango dituzte entzuleak "magia eta ospakizunez" beteriko kontzertuan. Gabon kantak, ipui-

nak, oroitzapenak eta sorpresak izanen direla jakinarazi dute. Sarrerak Iortian eros daitezke.

22an, igandea, 19:00etan, Etxarriko Abesbatzak Abesbatza Txikiaren laguntzarekin Aurtengoan bai! izenburuko kontzertua emanen dute, Etxarriko elizan. Aurreko urteetan ez bezala, aurten "benetako gabonetako kontzertua" emanen dute, "gabon kantez jositakoa". Kanta horietako batzuk ohikoak eta "betikoak" izango dira, "eta beste batzuk berriatik". Bukieran Valentziarako diru bilketa egiten dute.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Komikiaren Zutabe Nagusia

Musika balira bezala, komikiak erritmo baten logika jarraitzen dute. Bateria edo baxua kanta baten bizkarrezurra den bezala, komiki baten orrialdeen moldaketa haren zutabe nagusia da. Baxu jole gaixoak beti dauzkagu gutxituta. Banda barruan garrantzi txikia balute bezala, gaixoak gutxien ligatzen dutenak omen dira. Hala ere, nork imajina dezake gaur egungo EDOZEIN abesti edo genero moderno baxua agertu gabe... Are gehiago diot... zer izango litzateke funky musika talde bat bertan baxu bihurri bat ez balego? Kaka putza!

Tira, tila bat edan eta lasaitu ondoren utzi sakonago azaltzen, lagunok. Nahi eta nahiez gero, komiki batek – liburu batek bezala, bestalde – erritmo bat jarraituz kontatuko digu istorioa. Erritmo hau moldatzea eta nola erabiltzea ezinbestekoa da komiki bat maisulan bihurtzeko. Atera apunteak, hona hemen adibide bat: komiki formatu estandarrena biñeta karratua da. Erabilgarria da irakurleari irakurketa erraz bat eskaini nahi badiogu, baina baita ere kontatzen ari garen istorioa

tristea bada, eguneroko bizipena... Bestalde, Superman Godzila jipoitzen ari bada, biñeta dinamikoagoak beharko ditugu: luzeak, borobilak, diagonalean kokatuta, biñeta gabea...

Bestalde, erritmoa ez da orrialdeetan soilik jorratzen. Naruto mangaren *Chunin azterketa* sagak bederlatzi liburuk – hau astakeria – osatzen dute. Bestalde, Lucky Luken liburu bakoitza atal bat eta istorio independente bat bezala kontatzen da. Genero eta industria ezberdinek erritmo ezberdinak erabiltzera eramango gaitu.

Baina, Mikel, honek ez du zergatik horrela izan behar. Komiki dramatikoetan konposizio abstraktuak egin daitezke baita ere... eta blablaba. Bai, badakit, baina nik tokitxo txiki hau besterik ez dut hau azaltzeko, eta arauak hausteko gai izan baino lehen, arauak ondo menperatzea ezinbestekoa da. Komikiaren alde formal eta teorikoari buruz sakonago jakin nahi baduzue jo Scott McCoulden *Understanding Comics* bilduma irakurtzera. Ni tokirik gabe gelditu naiz.



Jose Luis Erdozia hizkuntzalari etxarriarra 'Burunda. Historia eta toponimia' liburuarekin, Altsasuko ferietan. ARTXIBOA

Burundako historia eta toponimia bildurik

Jose Luis Erdoziak 'Burunda. Historia eta toponimia' liburua kaleratu zuen udazkenean; Bakaikutik Ziordiar bitarteko toponimiaren errebisioa egin eta eguneratu du. Orain, Sakanako ermiten inguruko liburua kaleratu du

Eneida C. M. E. R. B. ETXARRIA.

Urte askotako kontu bat dela esan du Jose Luis Erdozia etxarriarrak *Burunda. Historia eta toponimia* liburuaz hitz egitera-koan. 1992an *Toponimia eta Mapagintza* hamar bat liburuk jaso zuten Nafarroako toponimia: "Jose Maria Jimeno Juriok bere talde batekin Nafarroa guztian toponimia jaso zuen, NTM Na-

farroako *Toponimia eta Mapagintza* liburuak bezala erabiltzen ditugu. Orain dela 30 urte egin ziren eta gauza gehiago ikasten, egiten eta jasotzen joaten gara". Hortaz, Erdozia konturatu zen Etxarrin, esaterako, gaur egun erabiltzen diren hainbat toponimia falta zirela, "eta beste asko ahaztu ditugunak". Sakana mailan horiek begiratzen hasi, eta

Burunda ekialde aldetik "bere-ziki" asko falta zirela. "Herri askotan hasi ziren ere mapa toponimikoak egiten, eta hor agertzen ziren asko ez ziren toponimia ofizialetan agertzen". Rafael Carasatorrek ere horietako "asko eta asko" jaso zituela azaldu du Erdoziak, "eta horren bueltan dokumentazioa bilatzen hasi nintzen" eta liburua sortu zuen.

Burunda. Historia eta toponimia sailkatzeko "Burunda zer den" pentsatu zuen. Aurretik *Principe de Viana eta Linguae Vasconum Primitiae* aldizkarietan idatzitako artikulueterako aztertuta zituen hainbat alderdi, eta horiei historia ere garrantzia ematea pentsatu zuen etxarriarrak: "Toponimo horiek guztiak non daude kokatuta eta nondik etor daitezkeen ikusteko". Beraz, historia jaso du, historiaurretik arkeologoen egindako lanetan oinarrituta eta dokumentazioan oinarrituta, "ia-ia XIII. mendetik aurrera dago dokumentazioa eta horrekin erakusten da zer aldeketa egon ziren populazioan". Esaterako, Urdiain izan zen mende dezentetan populatuena eta Altsasuk trenbidearen zabalpenarekin irabazi zuen populazioa.

Informatzaileak

Toponimia ofizialak egiten duen bezala, Erdoziaren liburuan *Burunda* mendebaldea - Ziordia, Olatzagutia eta Altsasu- eta *Burunda* ekialdea -Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku- banatzen ditu. "Bi eremu horietan zer despoblatur edo herri galduak esaten ditugunak dauden ere aipatzen da, eta etimologia ateratzen saiatu naiz". Erdoziak azaldu duenez, ezin da ziurtatu, baina bere ustez toponimiak "deskribapen maila handia" egiten du. "Bakaiku pentsatzen zuten Bakarrekotik heldu dela, baina nik uste dut Bagaditik heldu dela, Pagadi; pagoak herriaraino iristen dira gaur egun ere". Toponimia "generikoak" ere aipatzen ditu liburuan, hau da, zeintzuk diren gehien erabiltzen direnak.

Erdoziak *Burunda. Historia eta toponimia* liburua egiteko bidalgunak izan ditu: "Lan izu-

garria egin dute". Herri bakoitzeko informatzaile bat izan du eta liburuan guztien lana eskertu du. "Horietako batzuk, Santi Zelaia Urrestarazu altsasuarrak esaterako, Altsasuko euskara berreskuratzeko lanetan egon da ere, eta banekien mapa toponimiko bat egin zuela. Duela hogeita bat urte ezagutzen dut". Pedro Migel Kintana Ondarra bakaikuarrarekin ere urte luze-ko harremana izan du. Besteak "dezente gazteagoak" direla azaldu du, "Burundan euskara mantentzen iraun dezan lekuko" direla gaineratu du. Informatzaileekin gehien bat toponimiak nola esaten diren landu du: "Ofizialak beti nola izango diren jartzen saiatzen diren, baina gero herritarrek beste modu batera erabiltzen dute". Bestetik, haien ibilbide gogokoena markatu dute ere, toponimiak ezagutzeko modu bat baita.

Liburua toponimo bakoitza modu sistematikoan agertzen da: zein den toponimia, ahoskera, kokapena, osagaiak eta esanahia eta dokumentazioa. "Etokizuneko ikertzaileak laguntzeko.

Baselizak

Abenduan aurkeztu du Erdoziak Jose Luis Imaz Arañarekin batera egindako *Sakanako XXI. Baselizak* liburu. Imazek argazkiak egiten ditu, eta biak herriz herri eta ermitaz ermita dokumentatzen joan dira. "55 bat daukagu".

LIBURUAN TOPONIMIAREN ERREBISIOA ETA EGUNERAKETA EGINDU ERDOZIAK

'Zenkaki gorriak' liburua aurkeztu du Jon Arretxek

Toure sagaren hamaikagarren liburua da; "oso-oso" gordina eta interesgarria dela esan du idazleak

ARBIZU

Nobelaren abiapuntu bera "nahiko potentia eta erreala" dela esan zuen Jon Arretxek *Zenkaki gorriak* liburuaren aurkezpenean. Malcon Treviño-Sitte Toure Detektibea telesailen Toureren papera egi-

ten duen aktoreari gertatutako istorio batean oinarritu da idazle sagaren hamaikagarren nobelari hasiera emateko: "Berak kontatu zidan, eta nobela honentzat abiapuntu polita izango litzakeela pentsatu nuen: Toure

korrikan ari da bizitza salbatu nahian. Atzetik neonazi batzuk ditu, jipoitu edo hil edo batek daki zer egin nahi dioten. Beltza izateagatik". Tourek ihes egiten du eta aurrera egiten du nobelak.

Arretxeren nobelak hiri handienetako auzo baztertuenetan, "miseria gorria dagoen tokietan" oinarritzen dira, eta kasu honetan Bartzelonako Ravalen dago Toure: "Inoiz baino okerrago dago; etsita". Nobela "oso-oso" gordina, "baina interesgarria" dela esan du idazleak.



Jon Arretxe 'Zenkaki gorriak' liburuaren aurkezpenean. EREIN



Mari Domingi eta Olentzero kontu kontari.

"Mari Domingirekin kontu kontari ibiltzen gara"

Olentzero ikazkina, Mari Domingirekin batera, dena prestatzen ari da abenduaren 24ean gurera etortzeko. Harrera behar bezala prestatzeko, herrietan makina bat jende lanean ari da egun hauetan

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

1 Zer moduzkoa izan da aurten-go ikatz ekoizpena?

Nahikoa lan eginda gaude. Txondorren bat oraindik ketan dago, baina ikatz gehiena zakuetan dugu, banatzeko prest.

2 Ikatza asko banatzen duzu?

Hori sekretua da! Jasotzen baduzu, galdetu inguruan ea bakarren batek jaso duen. Eta gero atera kontuak.

3 Non dago Mari Domingi?

Momentu honetan ez dakit. Pentsatzen dut ni bezala bere pentsatzeko txokoan egonen dela. Opariak biltzeko moduagatik haserretu gara. Zerekin bildu, lazoak, edergarriak... iritzi desberdinak ditugu eta haserretu gara. Badakizu, hondakin onena, sortzen ez dena! Baina pentsatzeko txokoan tarte bat egon

ondoren, berehala adiskidetzen gara.

4 Nola antolatzen zara etxer etxe iristeko?

Bertakoa naiz. Eta basoan ikazkintzan lanean ibilita, bide eta xenda guztiak ezagutzen ditut. Mari Domingirekin kontu kontari ibiltzen gara.

5 Zeren inguruan?

Idatzi dizkiguten gutunez. Batzuk lotsagabe hutsak dira eta ez dute ezta Olentzero eta Mari Domingi maiteak ere idazten. Nahi dut hau, hura eta bestea. Zerrenda bat. Halakoei ikatza gurdikada bat uzteko gogoa ematen digu. Baina gehienak oso gutun ederrak dira, ilusio handia egiten digu. Ez dakizu zein gauza politak idazten dizkiguten.

6 Gutun guztiak irakurtzeko denbora asko behar duzu?

Jakina! Baina bioi izugarri gustatzen zaigu. Hori bai, batzuetan lanak izaten ditugu letra ulertzeko.

7 Zer moduz portatzen da Napo?

A ze fama jarri digun kanta horrek! Ez gabiltza haserre batean. Moldatzen gara. Egia da batzuetan haserretzen garela. Baina azkar asko lagun egin ere. Bidean lagun estimatua dugu astoa.

8 Zer sentitzen da kantatzen dizutenean?

Ikatza egiten gaudela, basoko txoriek kantatzen digute. Baina behin herrira jaitsita, a ze poza jendea elkarrekin kantuan entzutea! Abestiak entzunda, ilusioz beteta agurtzen ditugu guztiak. Gainera, urtetik urtera doinu edo kantu berriren bat ikasten dugu eta etxera bueltatzen garenean ezin bu-

digutela. Entzuteko irrikitan gaude!

9 Zer harreman duzu Bizarzuri edo Aita Noelekin?

Aldi berean lanean gaudenez, apenas ikusten dut. Berak mundu guztian lan egin behar du gainera. Baina, argi, gu ere ez gara larre motzekoak. Izurdiagako lagunekin Sahararaino iritsi ginen. Eta euskal diasporaren kontura mundu guztiko txokoak ezagutzen ditugu.

10 Eta erregeekin?

Makina bat aldiz esan diet berandu iristen direla opariak banatzera. Badakit urrutitik abiatzen direla, bide luzea egin da etortzen direla. Baina erregeak dira, laguntzaileak dituzte... Baina beti berdin. Hala ere, jakinda bide luzea egiten dutela, esnea eta galletak uzten dizkiet.

11 Urte berrirako zer nahi duzue?

Lehenik, elkarrekin, giro onean, ospa ditzazuela eguberriak. Eta egun hauetako ilusioak iraun diezazuela urte guztirako.

